

SOZIOLOGIA

Andrea ETXARRI ZABALETA

UN NUEVO AGENTE
SOCIALIZADOR ENTRE EL
ALUMNADO DE TERCER CICLO DE
PRIMARIA: INTERNET/
*AGENTE SOZIALIZATZAILE BERRIA
LEHEN HEZKUNTZAKO
HIRUGARREN ZIKLOKO
IKASLEENGAN: INTERNET*

TFG/*GBL* 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria
/
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**SOZIALIZAZIO AGENTE BERRIA HIRUGARREN
ZIKLOKO IKASLEENGAN: INTERNET**
***UN NUEVO AGENTE SOCIALIZADOR ENTRE EL
ALUMNADO DE TERCER CICLO DE PRIMARIA:
INTERNET***

Andrea ETXARRI ZABALETA /
Andrea ETXARRI ZABALETA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Andrea ETXARRI ZABALETA / Andrea ETXARRI ZABALETA

Izenburua / Título

Agente sozializatzaile berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan:
Internet / Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria:
Internet

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Olatz MUÑOZ ARRIETA / Olatz MUÑOZ ARRIETA

Saila / Departamento

Soziologia/Sociología

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua oinarri teorikoetan zein gaiak irakasle lanbidearekin duen harremanean egin du ekarpena. “Gizartea, familia eta eskola inklusiboa” eta “Gizarte- antolaketa eta giza garapena” arloek lanari dagokion gizarte eta sozializazio aspektuak ulertu eta osatzeko lagundu dute. “Komunikazio gaitasunak eta IKT” arloak komunikabideei dagokion eta Interneten eman den web 1.0 eta web 2.0 arteko ezberdintasunak ezagutzen lagundu didate, honek ekartzen dituen ondorioekin. “Oinarri psikologikoak: giza garapena eta gizarte ingurunea” eta “Garapen ebolutiboa eta ikaskuntza” arloek aspektu psikologikoei dagozkien arloak osatzen lagundu didate. Azkenik, “Irakasle lanbidea” arloak hurrengo lanak irakasle lanbidearekin duen harremana garatzen lagundu dit, legediaren markoa eta tutoretzaren esku- hartze eremuak osatzeko.

Didaktika eta diziplinako moduluak bide eman du jokoaren garrantzia (“Gorputz hezkuntza eta bere didaktika”) zein tutoretzaren bidezko zenbait proposamen didaktiko egiteko.

Halaber, Practicum modulua/ak bide eman dit inkesta egiterakoan zentrua ezagunagoa izatea eta tutoretza ekintzak duen garrantzia barneraturik izatea, bai eta familiek hurrekin duten inplikazioak haien garapenean duen eragina ikustera.

Azkenik, aukerako modulua garatzen da zehazki “Hezkuntza inklusiborako proposamen pedagogikoak” arloan hezkuntzarako har daitezkeen neurriak eta “esku- hartze psikologikorako teknikak” arloak hurrekin esku- hartzerako orduan kontuan izan beharreko aspektuak zein diren jakiterakoan lagundu dit.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Objetivos y cuestiones”, “Perspectivas históricas”, “Marco conceptual” eta “Conclusiones” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Gaur egun IKTak (Informazio eta komunikazioaren teknologiak), haien artean Internet, sozializazio agente garrantzitsuak bilakatu dira, batez ere haur eta gaztetxoaren artean, zeinak natibo digital izendapenaren azpian ezagutzen diren. Hurrengo lanak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrek Interneti buruz egiten duten balorazioa aztertzen du, baita teknologia berri honek aurkezten dituen arrisku eta aukerak ere (ikus- entzunezko edukietara sarbidea, elkarrekintza eta komunikazioa). Haien kasuan funtzio ludikoa du gehienbat, berdinekiko komunikazioa nagusituz. Komunikabideen eragina aztertzen da, baita autore ezberdinek aipaturiko alderdi positibo zein negatiboak ere. Azkenik, lanak dituen eragin soziologiko, psikologiko zein pedagogikoen inguruan hausnartzen da, guraso eta irakasleen arteko tutoretzaren bidez har daitezkeen neurriak adieraziz.

Hitz gakoak: IKT, Internet, natibo digital, tutoretza, Lehen Hezkuntza

Resumen

Hoy en día las TICs (Tecnologías de la información y la comunicación), entre ellas Internet, se han convertido en importantes agentes de socialización, sobre todo entre niños y jóvenes, los cuales son llamados nativos digitales. El siguiente trabajo estudia la valoración que hacen de Internet los alumnos de 5º y 6º de Educación Primaria y los riesgos y posibilidades que ofrecen estos medios (acceder a contenidos multimedia, posibilidades interactivas y comunicarse entre sí). La función es mayormente lúdica, primando el objetivo comunicativo con el grupo de iguales. Se analiza la influencia de los medios añadiendo tanto los aspectos positivos como negativos del uso de Internet que tienen diferentes autores. Finalmente se reflexiona acerca de las implicaciones sociológicas, psicológicas y pedagógicas que tiene el trabajo, aportando medidas que se pudieran tomar mediante la acción tutorial entre tutor y familias.

Palabras clave: TICs, Internet, nativo digital, tutoría, Educación Primaria.

Abstract

Nowadays, Information and Communication Technologies (ICT), especially Internet, have become into important socializing agents. These agents primarily affect children and young people, who are called “digital natives”. This paper/document analyses the evaluation of Internet in third cycle of Primary School pupils. It further assesses potential risks to children of emerging Web 2 possibilities. To children it’s function is mainly playful, prioritizing their aim of communication between them. It considers influences, weaknesses and strengths of Internet according to different authors. Finally, I reflect on sociological, psychological and educational implications that this work have, offering some possible solutions by means of tutorial action.

Keywords: ICT, Internet, digital native, tutoring, Primary Education

Aurkibidea/ Índice

Sarrera/ Introducción	1
1. Internet eta haurrak : aurrekariak, helburuak eta galderak	1
1.1. Aurrekariak	1
1.2. Helburuak/ Objetivos	4
1.3. Galderak / Cuestiones	6
2. Marko teorikoa	6
2.1. Aspektu soziologikoak	7
2.1.1. Sozializazio agente esplizituak : familia eta eskola	8
2.1.2. Sozializazio agente inplizitua : Internet	10
2.2. Garapenaren psikologiarekin erlazionaturiko aspektuak	11
2.2.1. LH 3 zikloko garapena	11
2.2.2. Jokoaren garrantzia	13
2.2.3. Komunikazioaren garrantzia	14
2.2.4. Internet eta erabilpen desegokiak	16
2.3. Aspektu pedagogikoak eta irakasle lanbidearekin duen harremana	18
3. Garapena :	24
3.1. Ikuspegi historikoak komunikabideen inguruan/ Perspectivas históricas o conceptuales de origen.	24
3.2. Esparru kontzeptuala/ Marco conceptual	27
3.3. Autoreen ikuspegi arrazoituak	29
4. Errealitatera gerturatze bat (atal praktikoa)	37
4.1. Ikerketaren aurkezpena	37
4.2. Emaizten azalpena eta balorazioa	44
5. Eskolarako eragin sozial, pedagogiko eta psikologikoak:	58
5.1. Eragin soziala	58
5.2. Eragin pedagogikoa	59
5.2.1 Proposamen pedagogikoak	60
5.3. Eragin psikologikoa	62
.....	
Ondorioak eta proposamenak/ Conclusiones y cuestiones abiertas	65
Erreferentziak/ Referencias	
Eranskinak/ Anexos	
A. I. Eranskina/ Anexo I : inkestaren plantilla/plantilla de la encuesta realizada	

Hurrengo lana Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek Internet komunikabideaz etxean egiten duten erabileran zentratu da, familiak duen eragina eta hau aztertzeak irakasle bezala ekar ditzakeen onurak edo egin ditzakeen ekarpenak kontuan izanik. Hasteko helburuetako bat egoera aztertzea da, ikasle hauen egoera deskribatu eta haiek Interneten duten bizipenera gerturatzea. Honetarako lehenagotik idatziriko informazio iturriak erabiltzeaz gain, hala nola, autore ezberdinek haur eta pantailen arteko erlazio honen inguruan zer ikuspuntu ezberdin dituzten, nire produkziozko inkesta ere erabili izan da. Lan honetan erabilitako norberaren egintzako iturria, Lekunberri- Larraunen proposatu eta egindako ikerketa da, zonalde honetako erabilera haurren ikuspegitik zein den aztertu eta errealitaterainoko hurbilpen bat eginez. Amaitzeko, hauen erabilera bideratzeko tutoreak tutoretza praktikaren bidez eta familiekin elkarrekintzan aurrera eraman ditzazkeen jardunak adieraziko dira.

1. INTERNET ETA HAURRAK: AURREKARIAK, HELBURUAK ETA GALDERAK.

1.1 Aurrekariak

Haur edo gaztetxoek komunikabideekin eta teknologia berrieekin duten kontaktua eta honen erabilera aztertzeak interesa XX. mendearen bigarren erditik dator. Hasieran komunikabide aztertuenetako bat telebista izan zen, honek izandako eragina eta hedapena zela eta.

Orokorrean oso eztabaidatuak izan dira masa- komunikabideak (izena haien audientzia ikaragarriagatik hartua dutenak), aisiarekin lotutako bitartekoak izateaz gain gizarte jarduera asko burutzeko nahitaezko ezagutzak lortzeko bitartekoak ere badirelako.

Interneten agerpenarekin batera, komunikabideen munduan azken berrogeita hamar urteetan gertatu den gertakizun garrantzitsuenetako bat telebistaren eragina izan da.

Gyddens Anthonyk (1991 1.edizioa 2006 azkena) *Sociologia* liburuko “*Komunikazioak eta masa- komunikabideak*” kapituluari adierazten duen bezala, telebistako saioren eraginak neurtzen saiatu diren azterketak asko izan dira, eta gehienek haurrak behatu dituzte, aparatu horri begira denbora asko pasatzen dutelako eta haien gizarteratze prozesuan eragina argia delako. Hala nola, 1976ko Glasgow Media Group-ek

argitaraturiko Bad News liburuan, berrien edukiaren eta hauek aurkezteko moduaren azterketa sistematikoa eskaintzeko helburua zegoen.

Komunikazioa gizabanako edo taldeen artean ematen den informazio joan etorria, hitzez zein beste sistemaren bidez, gai garrantzitsua da edozein gizarterentzako. Komunikabidei buruzko teorikoen artean iritzi ezberdineko egileak ditugu. McLuhanen (1964) ustez, komunikabide elektronikoak berak herri globala deitu zuena eratzen ari dira, mundo guztiko pertsonak gertakizun berberen ezagutza eta bizipena partekatzeko aukera emanik. Komunikabideen ikuspegi ezkorragoa duten egileak ere baditugu, hala nola, Habermas (1989), zeinak masa komunikabideen garapenak eremu publikoa itxura egite hutsa bihur dadin eragiten duela usten duen. Eragina hauek adierazten dutena baino sakonagoa dela uste duten egileen artean Baudrillard dugu, zeinak masa komunikabideak gure bizitzaren berezko izaera eraldatu dutela uste duen eta telebistak berak zehazten duela gero eta gehiago gure bizitza benetan nola den. Hau honela Thompsonen (1995) Habermasen ikuspegiak hartzaile pasiboegitza hartzen gintuela ikusirik hartzaileak ere mezu hartzerakoan bere egitekoa zuela adierazten zuen.

XX. mendearen erdialdera eman diren garapen teknologikoen, asko aldatu dute telekomunikazioen ikuspegia, egun Internet den bitarteko bakar batean teknologia modu ezberdinak (irudiak, soinuak, irratia, telebista...) konbinatuz.

Hau honela, komunikabideen inguruan ditugun ikerketa gaurkotuetako batzuk honako hauek dira Espainiari dagokionez. CISEK (Centro de Investigaciones Sociológicas) 2000garren urtean *“La televisión y los niños: hábitos y comportamientos”* ikerketan Espainian haurren eta telebistaren arteko erlazioa nolakoa zen aztertu zuen gurasoen ikuspegitik (haiei bideraturiko galderen bidez). Bertan denborari, edukiei, gurasoek zuten jarrerari eta telebistak beste ekintzei kendutako denborari buruzko azterketa egin zen, bai eta telebistari buruz gurasoek egiten zuten konsumoa eta balorazioa ere. Nire galdeketa egiterako orduan inkesta hau kontutan hartu nuen, bertatik ideiak ateratzeko. Gurasoek haur eta pantailen artean egiten duten bitartekaritzari dagokionez badaude aspektu hau aztertu nahi izan duten lanak, hala nola, 2004ean Llopis- Goig R-k azaleraturiko *“La mediación familiar del consumo infantil de televisión. Un análisis referido a la sociedad española”*. Beranduago, 2008. urtean, Ruiz San Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Roman J.A-k *“Niños y pantallas. Oportunidades y retos de una relación en transformación”* argitaratu zuen, non telebistaren eragina modu kritiko batez landu zuen teknologiaren soziologia kontutan hartzearen garrantzia azpimarratuz. Aurrerago, 2009an Telefonikak bere *“La generación interactiva de España. Niños y adolescentes ante las pantallas”* lanean, haur eta gazteek pantaila ezberdinen aurrean (Internet, bideojokoak, mugikorra zein telebista) duten erabilera eta erlazioa aztertu zuen, eskola eta familia kontuan harturik. Hemen telebistaren ikerketa egiteaz gain, ikus daitekeen bezala, beste komunikabide berriagoen azterketa sakona ere egin zen.

Pantailen alderdi konkrituagoei bideraturiko ikerketak ere badaude, hala nola 2011ean J. I. Imaz Bengoetxeak eginiko *“Pantallas y educación: adolescentes y videojuegos en el País Vasco”* lana, Euskal Autonomi Erkidegoko gaztetxoek bideojokoen munduaz egiten duten erabilerari buruzko ikerketa. Bertan gazte euskaldunen bideojokuen erabilera kuantitatiboa aztertu zen eta jokuen hezkuntza-erabilera edo erabilera pedagogikorantz bideratu zuen, tailer batzuk diseinatu eta hauek errealitatean zuten erantzuna frogatuz.

Ikus dezakegunez, gai honek piztu izan duen interesa zientifikoa izateaz gain, zenbaitetan pedagogikoa ere izan da, adibide moduan, aipaturiko azken ikerketa, non bideojokuak ikaskuntzarekin erlazioan jartzen zituen proposamen pedagogiko bat planteiatu eta aurrera eramane zen.

Gai hau jorratu izan denean ezberdinak izan dira hartu diren ikuspegiak, adibidez, gurasoen ikuspegitik edo haiei proposaturiko galdetegiaren bidez (hala nola, lehenago aipatutako CIS-ek egin zuen ikerketan). Nire kasuan ikuspegia ikasleetan zentratua dago, haiek bizi duten mundua haien hitzen bidez jaso eta haiek duten Interneti buruzko iritzia edo bizipena bitartekaririk gabe jasoz. Honetan ikasleek Interneten etxean duten jabetza, dituzten lehentasunak, eduki zein denbora aldetik izan ditzazketen mugak zein Interneteko edukien aurrean ikusten dituzten alderdi positibo zein indarguneak eta alderdi negatibo zein ahulguneak aztertzen dira. Berezitasunen artean etxekolanetarako erabilgarritasunaren ikuspegia haien aldetik (ikasleen aldetik) ere planteatzen da. Puntualki bideo, joko zein sare sozialen erabilera ere aztertzen da, konkretuki hauen kontsumoa nolakoa den eta sexuaren arabera ezberdintasunik badagoen ikusteko helburuarekin.

Behin datuetatik informazioa hartu eta ondorioak aterata irakasle bezala hartu daitezkeen neurri-arruntak planteatuko dira. Neurri-arrunten artean tutoretza-ekintza dugu. Tutoretza ekintzaren bidez, eta gurasoekin izan beharreko elkarrekintzak duen garrantzia kontutan harturik, ikaskuntza-talde bezala lan egingo da.

Gaur egungo gizartean haurren sozializazioan eragina duen agente honen erabileraren deskribapena eginik, familiarekin batera hildo berdinak jarraitzea proposatuko da. Honetan baliagarri izanen dira elkarte ezberdinek Internetek haurretan izan ditzazkeen eraginak aztertu eta erantzunak ematen dizkieten web-guneak, hala nola *www.protegeles.com* edo *www.ciberfamilias.com* non haur eta gaztetxoek Interneten erabilera egoki bat egin dezaten aholkuak ematen diren. Bertan bai haurrei bai gurasoei zein irakasleei zuzenduriko informazio ugari lor daiteke. Honekin guztiarekin lortu nahi dena, ikasleen sozializazio modua hobeto ulertu eta ongi bideratzea da, baliabide berri honek (Internetek) haien ikaskuntzan zein heziketa integralean ekar ditzazkeen onurak probestuz. Hau honela, tutoretza praktikaren bidez eta gurasoekin elkarlanean, gaztetxo hauen heziketa amankomunean bideratuz haien garapenean lagunduko dieten ekintzak adosteko bidea lantzen hasiko da. Haur eta gaztetxoek haien sozializazio prozesua beraientzako sortutako eta haien adinera egokitutako orrialdeen bidez (hala nola, *www.micueva.com*) egin dezaten ahal den neurrian.

Azken finean gure gizartearen informatizazioa hain da indartsua, non ordenagailurik erabiltzen ez dakien bat "alfabetatugabea" izango den. Eskolaren eginbeharra gaztetxo hauek hezitzea da; eta gizarteratzea edo bizitzarako prestakuntza eskeini behar zaien heinean, ezin dugu eskola eta gizartearen arteko harresi bat ipini, baizik ikasleei gizarte berri honetan maneiatzeko baliabide nahikoak eman.

1.2 Helburuak/ Objetivos

- Recopilar y analizar información (estudios, artículos, libros...) publicada hasta el momento acerca del tema para tener un punto de partida.
- Conocer las características psicológicas, sociales y evolutivas del alumnado en esta etapa de Primaria para entender el momento en que se encuentran éstos y contextualizar el tema.

- Describir las características evolutivas del alumnado de entre 10 y 13 años para entender sus necesidades y orientar la educación en relación a su momento evolutivo.
- Comprender la importancia del juego en esta etapa y los beneficios que tiene en el alumnado.
- Conocer la importancia de la comunicación en la familia para la creación de un vínculo de confianza y el bienestar del grupo.
- Explicar la importancia y funciones que tiene la relación y comunicación con los iguales en esta etapa de transición entre niñez y adolescencia.
- Definir las funciones que tienen la escuela y el/la tutor(a) para determinar qué acciones pueden llevar a cabo en la educación del alumnado.
 - Mencionar las funciones que debe llevar a cabo el/la tutor(a) y especificar la importancia de la relación familia- tutor(a) en la acción tutorial.
- Conocer las diferentes perspectivas acerca de los efectos del uso de Internet en la niñez y adolescencia que tienes diversos autores para poder reflexionar acerca de ellos.
- Conocer y reflexionar acerca de las consecuencias negativas y positivas que puede tener la utilización de Internet del alumnado de tercer ciclo de Educación Primaria.
- Hacer un análisis cuantitativo y cualitativo sobre el uso que hacen de Internet en casa los alumnos de tercer ciclo de Primaria, con el objetivo de conocer mejor su manera de socialización y poder orientarla.
 - Recoger la visión que tienen los alumnos de tercer ciclo de Primaria acerca de Internet, su uso y los aspectos tanto positivos como negativos que ven en ello, adquiriendo así una visión directa sin intermediarios.
 - Analizar la brecha digital que hay hoy día entre la generación de los niños o jóvenes y sus padres/madres para poder entender las dificultades y proponer medidas.

- Recoger el uso que hacen los/las padres/madres de los alumnos, para conocer el tipo de ejemplo que son para ellos, siempre desde el punto de vista del alumnado.
- Reflexionar acerca de la influencia que puede tener el llevar a cabo este estudio en aspectos sociales, psicológicos y pedagógicos; entendiendo así la importancia del tema tanto a nivel social como a nivel educativo.
- Sugerir medidas tutoriales que se pudieran tomar en relación con los padres, para mejorar la socialización del alumnado y orientar su adecuada evolución.
- Especificar tanto acciones que se pueden llevar a cabo conjuntamente como herramientas para que las familias puedan hacer frente a diferentes situaciones.

1.3 Hausnarketarako galderak/ Cuestiones para la reflexión

- ¿Cómo puede responder el docente a los nuevos retos que plantea Internet para mejorar el uso que hace de él el alumnado en la familia?
- ¿Es necesaria la intervención en la utilización de Internet que hacen en casa los niños de tercer ciclo de Educación Primaria?
- ¿Qué medidas puede tomar el docente para que el alumnado haga un uso responsable y de acuerdo a su edad de Internet? ¿Y la escuela?
- ¿Puede resultar positivo el uso adecuado de Internet para el desarrollo y educación en el alumnado de tercer ciclo de Primaria? ¿Qué pueden aportar los videojuegos? ¿Y las redes sociales?
- ¿Cómo pueden afectar las redes sociales en la forma de comunicarse de este grupo de edad?

2. MARKO TEORIKOA: OINARRIAK ETA IRAKASLE LANBIDEAREKIN ERLAZIOA

Lehenik eta behin, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko haur edo gaztetxoek pantailekin duten elkarreragina ulertze aldera, kontuan hartzea ezinbestekoak diren alderdiak ditugu, hauen artean, alderdi soziologikoa, psikologikoa zein haurren garapen momentua.

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Batetik, alderdi soziologikoa ezinbestekoa da haien ingurua eta sozializazioan eragiten duten agenteak zein diren ezagutzeko. Bestetik, alderdi psikologiko edo psikologia ebolutiboa haurrek garapenaren une konkretu honetan dituzten ezaugarriak eta ematen diren aldaketak ulertzeko. Eta azkenik, adin honetan jokuak zein komunikazioak duten garrantzia aztertuko dira. Batetik jokuak haur eta gaztetxoengan duen garrantzia ulertzeko (bideojokoekin erlazioa ulertzen lagunduko diguna) eta bestetik, komunikazioa, bai gurasoekin bai adin berekoekin (azken honetan aldaketa garrantzitsuak ematen hasten baitira adin honetan).

2.1 Aspektu soziologikoak

Soziologiaren ikuspegia garrantzitsua da, esan bezala, ikaslea ez baita isolaturik bizi, eta bere sozializazio edo gizarteratzean eragina duten zenbait agente daude. Garrantzitsuenen artean, familia (lehen sozializazioan ezinbesteko funtzioa duena) eta eskola ditugu, baina gaur egun garrantzia handia eskuratu duen hirugarren agente sozializatzaile bat dugu: Internet. Jarraian sozializazio prozesua eta hiru agente hauek ikaslearengan duten eragina sakonago azalduko dira:

Soziologia pertsona baten eta gizartearen arteko elkarreragina, jarrera sozial zein jarraibideak barneratzeko prozesua aztertzen duen zientzia da. Sozializazioa bi ikuspegitatik aztertu daiteke: gizarteak gizabanakoan eragiten duen ekintzaren bidez (indibidua modelatu eta gizarte bateko baldintzetara egokituz) edota indibiduoak gizartearekiko duen erreakzio edo erantzunagatik.

Sozializazioa azken finean, gizarte bateko kideek haien kultura transmititzeko prozesua da, zeinaren bidez kultura belaunaldiz belaunaldi transmitituz gizabanakoek ezagutzak ikasi, eta bizitza sozialean parte hartzeko beharrezkoak diren beren gaitasunak garatu eta bere gizarteko jokabide eredu bereizgarrietara egokitzen duten.

Jose Taberner Guaspek (2009) *“Soziologia eta hezkuntza. Hezkuntza-sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatzakak”* liburuan adierazten duen bezala, Gizakiaren nortasuna, eta azken finean, gure ikasleen nortasuna, bi osagaik eratzen dute. Batetik, temperamentua (genetikoki hartu duguna) eta bestetik izaera (gizartearekiko eragin- trukean bereganatzen diren gaitasun eta jarrera- multzoak

osatua). Ikasleek instituzio ezberdinetan (eskolan, familian, ekonomian, aisian...) hartu beharreko rol horiek, sozializazio prozesuen bidez eskuratzen dituzte.

Sozializazio agenteak

Prozesu horretan, agente ezberdinek hartzen dute parte, zeinen bidez ikaslea gizarte-taldearen kultura, balio, arau eta bizimoduetara barneratzen den. Batetik, sozializazio-funtzio esplizitua duten agenteak daude, kasu honetan, familia eta eskola. Bestetik, modu ez hain zehaztuan edo modu inplizituago batean sozializatzen duten agenteak ditugu, hala nola, telebista, internet zein beste pantailak.

2.1.1 Sozializazio agente esplizituak: familia eta eskola

Familia

Agente esplizituei dagokionez familia eta eskola ditugu. Familia gure nortasuna eraikitzen dugun talde primarioa da eta agente esplizituen artean garrantzitsuenetariko bat, hau da, haurra eta gizartearen arteko lokarria sortzen duena.

Testuinguru familiarrean egondako aldaketak zuzenki eragiten dute familia barruan egon daitekeen erlazioan. Gaur egungo gaztetxoak duela hamarkada batzuk existitzen ez ziren familia kontextu ezberdinetan kokatzen ditu: anai- arrebak gutxiagoko familiak, guraso bananduko familiak, familia guraso bakarrak, bi gurasoak lanean dauden familiak... Baina ezberdintasun handiena ez legoke familia “forma” hauetan, baizik eta balore eta jokabide formetan.

1. Taula: Lehen eta oraingo familiarren baloreak.

Lehenagoko familiarren baloreak (XX. mendea)	Gaur egungo familiarren baloreak (XXI. mendea)
Ezkontza egonkortasuna	Egoeren ezegonkortasuna
Aukeraketa baldintzatu edo mugatua.	Bikotekidearen aukeraketa librea bi kideen partetik Pertsonalitatearen garapena.
Emakumearen zaintza eta laguntza funtzioa etxean Eredu patriarkala	Plurieresponsabilitate familiarra Genero berdintasuna

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Familia uniformetasuna	Familia aniztasuna
Homogeneitate kulturala	Aniztasun kulturala

Iturria: Alemán Bracho, C & Rondón García, L.M & Munuera Gómez, P. (2007) *Nuevos valores como escenario de la pluriformidad familiar del siglo XXI*. Egileak itzulia.

Aipaturiko ezaugarriez gainera, familietan gizon eta emakumezkoen eginkizunak gero eta berdintsuagoak izateko tendentzia nabarmenki areagotu da. Gaur egun hezkuntza bateratuagoa da seme-alabei dagokionez, ez da ama haurraren garapen eta hezkuntzan parte hartzeko rola duen bakarra baizik ama/aita, ama/ama, aita/aita, ama/ familia zabala...

Familiak betetzen dituen funtzioen artean, eta familia izaerari loturik dagoen aspektuetako bat bitartekaritza da. Hau honela, haurren komunikabideen erabilera eta familiak haurrarekin duen komunikazioa eta bitartekaritza erlazio zuzenean daude. Beraz, oso aldagai garrantzitsua da gurasoek haurrari familian hezteko estiloak zein diren edo hauek egiten duten bitartekaritza moduak ezagutzea.

Hauen artean *Llopisek (2004)* hiru kategoriatan bereizten ditu gurasoak pantaila eta haurren bitartekaritzari dagokionez: kontrolatzaile- murriztailea, permisiboak eta guraso orientatzaileak. Hala ere banaketa zabalago bat bada.

- Kontrolatzaile- murriztailea: arauak jarri eta seme- alaben kontrol handia izan nahi duten gurasoak dira, haien pantailekiko kontsumoa kontrolatu eta murriztuz. Estimulazio gutxi eta kontrol handia seme-alaben pantailen kontsumoan.
- Permisiboak: seme alaben pantaila kontsumoan ez dute esku- hartze esanguratsurik egiten. Konsumo handia baina edukien kontrolik gabe.
- Orientatzaileak: estimulazio handia eta kontrol gutxi, kontsumo handia da baina edukien kontrolarekin.
- Selektiboak: estimulazio handia eta kontrol handia, bai kontsumo eta bai edukien kontrola orekatuagoa izanik aurrekoetan baino.

Hau ikusirik, adieraz dezakegu, haien seme- alaben pantailen kontsumoa bideratzen dutenen artean ere ezberdintasunak badaudela. Bitartekaritza hau debeku soilaz egin

daiteke, edo seme- alabekiko komunikazioaren bidez eta haiekin batera mugak eztabaidatuz.

Eskola

Maria del Mar Cañete Pulidok (2010) *“La socialización en la escuela”* lanean dioen bezala, hezkuntza erakundeek, kasu honetan eskolak, haien sozializazio funtzioa adin berdineko taldearen eta familiarik kanpoko helduen bitartez transmititzen dio haurrari, baita jarrera sozialen egokitzapenaren bitartez ere.

“Educar es socializar (II): por una socialización rica y crítica” idatzian Trujillo. F-k eskolan sozializazio egoki bat eman dadin hiru ekintza garrantzitsu aipatzen ditu: informazioa, ekintza eta mugimendua.

Informazioa gure ikasleak gizartearen aniztasunaz jabetzera eraman behar ditugu, haien identitatea anitza eta esperientzia ezberdinengatik sortua dela erakusteko. Ekintza, inguruari buruzko informazioa bilatu eta prozesatzen erakutsi behar zaielako, haien ingurunean eragiteko estrategiak diseinatu ditzaten. Eta mugimendua eskolan pertsona eta esperientzien hartu- emana bultzatu dadin.

Eskolak gizarteko hezkuntza- rola hartzen duen ikuspegitik, ikasleak etorkizunerako prestatzen ditu, ezagutzak, ohiturak zein baloreak transmitituz, gizartean elkarrekin eta gizartean parte- hartze aktibo bat izan dezaten. Eskolan ikasleak mundua ezagutu, besteekin elkarbanatzen, mugak ezagutzen eta bere identitatea eratzen lagunduko duen lekua izango da.

Heldua izango denerako eskubide eta betebeharrak dituela ikasiko du, heldua izango denerako bere nortasuna eratuz.

Eskolaren beste gizarte- funtzioetako bat gizartean gertatzen diren aldaketak baloratu eta onuragarriak badira haietara egokitzea da, hala nola, gure kasuan, teknologia berrien integrazioa. Kaltegarriak badira, bestalde, haiei aurre egiteko estrategiak sortzen erakutsiko die ikasleei, adibidez, materialismoa edo diskriminazioaren aurka.

2.1.2 Sozializazio agente implizitua: Internet

Sozializazio agente implizituak, era ez esplizituan sozializatzen duten horiek dira: telebista, Internet zein beste pantailak edo komunikabideak.

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Agente inplizituei dagokionez, gaur egun, sozializazioan eragin handia izan duen aldaketa sozialetako bat aparailu teknologikoen agerpen azkar eta masiboa izan da, aurreko belaunaldikoekin ezberdintasunak sortuz, hala nola gaur egun ikasleek beren guraso edota irakasle direnekin dituztenak.

Haurren artean komunikabideak, eta haien artean Internet, agente sozializatzailerik garrantzitsuak bihurtu dira, batez ere gaztetxoaren artean, zeinak pertsona askorekin komunikatzeko aukera ematen dieten.

Internetek, bai sozializazioan bai hezkuntzan eragin dezake helburu hori duten programak erabili ezker. Baina, normalean komunikabideek balio eta ideia ereduak adierazi, proposatu eta transmititzen dituzte, askotan gaitasun kritikoa sahiestuz.

Lehenik eta behin, komunikabideek norberaren errealitatea eraikitzeke informazioa ematen digute, zeinaren bidez gure ekintza edo jokabidean eragiten duten.

Bigarrenik balore, arau, eredu, simboloak ahalbidetzen dizkigute gure nortasuna eta kohesio soziala eraikiz.

Hala ere, komunikabideen bi norabideetan eragin dezakete: modu koherente batean edo aitzitik, desagituraketa bat sortuz.

2.2 Garapenaren psikologiarekin erlazionaturiko aspektuak

2.2.1. LH 3 zikloko garapena

Psikologiaren alderditik edo haurren garapenaren psikologiatik, haurrak etapa konkretu honetan (10-13 urte) zenbait ezaugarri eta aldaketa pairatzen ditu, bere sozializazioarekin erlazio zuzenean egongo direnak edo eragingo diotenak. Garapenari dagokionez aspektu ezberdinetan ematen dira aldaketak: fisiko edo motoreak, kognitiboak, afektiboak zein sozialak. Haiekin esku- hartzerakoan ere ezaugarri hauek kontutan hartzea ezinbesteko izango da.

Batetik, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikaslea haren garapenaren une konkretuan dagoela kontuan izanik, honako aldaketa edo ezaugarriak ematen da zenbait aspektutan:

Garapen fisiko eta motorea: adin honetan haurren gaitasun pertzeptiboak hobetzen dira aurreko etapei dagokionez eta baita koordinazio psikomotorea ere. Talde jokuak edo dinamikak dituzte gustoko, banakakoen aurrean. Batzuen kasuan pixkanaka helduaren itxura emango dioten aldaketa fisikoak ematen hasten dira.

Garapen kognitiboa: haurren operazio formalak egiteko gaitasuna hobetzen da eta komunikatzeko gaitasuna ere hobetzen da. Egozentrismoa jeitsi eta kooperatibismoa igotzen da. Oroimena eta pertzeptzioari dagokien aspektuetan asko hobetzen dira.

Garapen afektiboa: adin honetan lagunekiko erlazioa garrantzia hartzen doa. Maitasuna eman eta jasotzeko beharra esperimentatzen dute eta adoleszentiara sartzen doazen heinean afektuak eta sentimenduak aztoratzen doaz. Adinean gora dihoazen heinen batez ere, adin berekoekin izango dituzte afektuak areagotuz doaz.

Garapen soziala: arau sozialak barneratu eta besteen iritziak gehiago kontutan hartzen dituzte. Erreferentzia taldea (adinekoen taldea) garrantzia hartzen hasten doa.

10- 13 urte bitarte horretan, esan bezala, emozionalki haurren familiarekiko independentzia handituz doa lagunekiko interesarekin bat. Arauei dagokionez oraindik ere familiako arauak dira haien jokabidea gidatzen dutenak, baina dagoeneko konsziente dira bere lagunen etxeetan arauak zenbaitetan ezberdinak direla.

Adin honetan oso garrantzitsua da haurrentzat, laguntasun- erlazio osasuntsuak izatea, adin berekoek beregan izan dezaketen presioa oso handia izan daitekeelako. Gainera, autokontzeptuaz gero eta kontzienteago dira eta arazoak ere agertzen doaz pixkanaka gorputz irudiari dagokionez.

Erresponsabilitate eta independentziaren garapenean ere aurrerapenak ematen dira adin tarte honetan.

Esku- hartzerako teknika psikologikoei dagokionez, oso garrantzitsua da ikasleen garapen eta orientabide egokirako haien guraso eta irakasleek ematen dioten eredua. Funtsezkoa da esaten diogunarekin koherenteak izan eta berak guk ere era berean jokatzen dugula ikustea, honela arauak edo finkatzen diren jarraibideei zentzua ikusi eta bete ditzan, koherentziak eragin psikologiko handia dauka eta.

Honetaz gain, garrantzitsua da haien ekintza bat gustatzen ez zaigula adierazten dugun bezala, zeozer ongi egin edo positiboa dela uste badugu haiei momentuan adieraztea. Honekin jokabide hori errepikatzeko aukerak areagotu eta haiekiko aspektu positiboak ere baloratzen ditugula ikusiko dute, haien autoestimuan positiboki eragin eta haiekiko erlazioa hobetuz.

2.2.2. Joko jolasaren garrantzia

Joko-jolasa aipatzea ere garrantzitsua da. Joko-jolasak garrantzia handia du haur eta gaztetxo hauen garapenean eta beste jarduerak betetzen ez dituzten funtzio ezinbestekoak betetzen dituzte. Dituen funtzio ezberdinak ezagutzea ezinbestekoa da gero bideojokoen alderdi positibo zein negatiboez hitzegiterakoan ere kontutan hartu ahal izateko. Joko-jolasarenaren esperientziarekin erlazonaturik dauden aspektuak honakoak dira Marisa Luisa Plazarekin graduako hirugarren ikasturtean *“Gorputz hezkuntza eta bere didaktika”* arloan landu genuen moduan:

Joko-jolasa jarduera atsegina da, ezinbestekoa umearen garapen harmonikoan. Jarduera bat da eta jolasa bertan da helburua, ez du produkzio helbururik. Jolasa definitzen duten kontzeptuak honakoak dira: askatasuna (borondatez hautatutakoa), ez ziurra (emozioa eta interesa sortzen dute), fikziozkoa (eguneroko bizitzarekiko irrealia) eta egiazkoa (bakoitzak bere burua eta sentitzen duena azalarazten du).

Jolasa umearentzat esperientzia aberatsa, gustokoa eta erabakigarria da. Honen bidez, etengabe parte hartzen dute aukera kognitiboek, moralek, sozialek, afektiboek...

Alderdi kognitiboan jolasa ezagutzak lortzeko eta egokitzeko prozesu etengabea da. Umeak munduko ekintzak eta gertaerak aurkitu, ikertu eta asimilatzen ditu eta rolak zein ekintzak imitatu nahiz irudikatzen ditu. Honela, errazagoa da, batetik, ikastea eta, bestetik, gizarteratzea. Piageten ustez, haur- jokoek eboluzio mentala islatzen dute. Jokoaren bidez haurrak asimilatu (ezagutu, erlazonatu...), kokatu eta egokitu egiten du bere burua.

Alderdi afektiboa ere garrantzitsua da, haurrak joko-jolasean sormen-, araketa-, egoera- forma ugari erabiliz, nahiak eta beharrak adierazten ditu. Haientzat errealitatearen aurrean lasaialdiak dira; aske sentitzen da, irudimenezko egoerak sortuz eta guztia menderatzen.

Haurrak hauetan ibiltzen adierazten dituen oinarrizko funtzioak honako hauek dira. Batetik gauzen gaineko kontrola izatea, zeinak bere burua baieztatu eta segurtasuna eskeintzen dion. Bestetik, komunikatu eta rol anitzetan parte hartzen ahalbidetzen dio, haien mundu edo errealtate zabalagotik aterez.

2.2.3 Komunikazioaren garrantzia

Komunikazioak duen garrantzia ere aipatzekoa da, adin konkretu honetan bi komunikazio mota ezinbesteko bereiziz. Batetik gurasoek seme-alabekin duten komunikazioaren garrantzia azalduko da, familia erlazio egoki bat eta umearen garapen zein izaeraren eraikitzean eragin zuzena izango duena. Bestetik, adin honetan garrantzia asko hartzen hasiko den komunikazio mota aipatuko da, berdinekiko edo adin berekoekiko komunikazioa.

Komunikazioak garrantzia handia du gizartean, eta are gehiago guraso eta seme-alaben arteko komunikazioak. Komunikazio egoki baten bitartez informazioa eman eta jasotzeaz gain, giza harremanak ere garatzen dira: emozioak adieraztea, iritzia ematea...

Komunikazio moduen artean, ahozkoa eta ez ahozkoa ditugu eta garrantzitsua da hauek batera joatea, esaten dugunak zentzu egokia har dezan.

Komunikazioaren bitartez giza harremanak garatzen ditugu eta zentzu honetan gurasoek haien semen- alabekin komunikatzeko joera irekia eta aktiboa izatea onuragarria da haientzat. Honela, haurra edo gaztetxoak bere mundua azalerratu eta erlazioak interpretatzen ikasiko du, bere nortasuna eraikitzen joango da eta bizi duen errealtatetik gertuago egoten lagunduko dugu.

Gurasoak zein irakasleak haurren eredu izango direlarik, komenigarria da, garbi hitz egitea, lasaitasunez, motibagarriak diren egoerak sortuz, entzuten jakinez eta komunikatzen ari den guztian interesa agertuz.

Bai guraso bai irakasleek, denbora eman behar diogu haur eta gaztetxoekin hitzegiteari, haiek egiten dituzten ekintzen gaineko interesa adieraziz. Hau beharrezkoa da haurren garapen integralerako eta bai familiaren zorientasunean positiboki eragiteko ere.

Komunikazioaren bitartez konfiantza lantzen dugu bai besteenganako bai gure buruarekiko ere, erlazio interpersonalak landuz. Komunikazioa seme-alaba eta gurasoen arteko arrakastaren oinarria da.

Haiekin komunikatzerako momentuetan ez da erantzuna indartu behar, baina haiekin elkarrizketa sortzea garrantzitsua da. Haurrari egunez egun ohitura hori irakasten bazaio, gurasoekin komunikaziozko erlazio bat badu, helduarora igarotzen ari denean ere naturalago ikusiko du haienganako interesa.

Esan bezala, adin honetan beste erlazio edo komunikazio- mota bat ere garrantzia hartzen doa: *adin berekoekiko komunikazioa eta erlazioa*.

7 – 11 urte bitartean, adin berdinekoen artean komunikatzeko gaitasuna hobetzen doa, besteen emozio zein nahiak hobeto interpretatuz. Agresio fisikoak gutxitzen dihozen heinean ahozko “pikeak” areagotzen dira. 12- 13 urtetara iristean, berdinekiko interakzioa kooperatiboago bihurtzen da eta denbora gehiago pasa nahi dute haiekin, baina honekin batera adin berdinekoek gaztetxoarengan duten eragin eta presioa handitzen da.

Laguntasunaren kontzeptua ere aldatzen da beste etapa batzuekiko. Etaparen hasieran (10 urte) laguntasuna kooperazioa eta elkarrekiko laguntzan oinarritzen da. Aurreko etapetan haurra bere ikuspuntu eta pentsamenduetan murgildurik dago, honetan aldiz, beste nahiak, beharrak zein emozioak ulertzeko gai da. Momentu honetan oraindik, haien lagunak normalean laguntasuna adierazten dieten sexu berekoak kideak dira. Laguntasun erlazioak aurreko etapetan baino iraunkortasun handiagoak izaten dira.

Adinean gora doazela (13 urte), laguntasuna iraunkortasuna duen eta elkarrekiko ezagutzan zein afektuan oinarritzen den erlazio bat bezala ulertzen hasten da. Oso garrantzitsuak dira konfidantza, errespetua, zintzotasuna, intimitatea... Normalean ezaugarri edo zaletasun zein interes antzekoak dituzten lagunak bilatzeko joera dute, baita haien bizitzarekiko ikuspuntu bera duten lagunak. Sexuari dagokionez, mutilek talde handiagoak eratzeko joera dute neskekin konparatuz (azken hauek zorrotzagoak baitira laguntasunean sortzen den intimitateari dagokionez). Bi sexuen arteko erlazioak gero eta ohikoagoak izaten hasten dira nerabazarora sartzen diren heinean.

Lagunek garapen afektibo eta sozialean eragina dute, emozio eta sentimenduak (afektua, laguntasuna, segurtasuna...) eta esperientziak barneratzen laguntzen dute.

Pertsonalitate edo izaeraren garapenean ere eragina dute, identitate pertsonala garatzerako orduan. Laguntasun erlazioek egoera berri edo zailagoen aurrean beharrezko segurtasuna ematen dute. Ikuspegi soziala ere aktibatzen dute, errazagoa baita ezagunekin eta berdinekin enpatizatzea. Honekin haien arteko erlazioa hobetzen dira.

Lagunak ere gaitasun sozialaren adierazleak dira, lagun berriak eratzean gaztetxoaren autoestimuan igoera bat suposatuz.

Bai familiarekin bai berdinekin erlazioak garrantzitsuak dira, funtzio ezberdinak baitituzte. Familia eta berdinen eragina konparatzen duen taula honakoa da:

2. Taula. Berdinen taldeak ahalbidetzen dizkion funtzioak familiarekin konparatuz.

FAMILIA	BERDINEN TALDEA
Kidetza dudaezina. Haurreraren baieztapen baldintzagabea.	Kidetza: lortu beharreko zerbait taldeko arauetara egokituz.
Erlazio asimetrikoak	Erlazio simetrikoak
Konparaketa aukera eza	Konparaketa aukera
Elkarreraginerako estrategiak barneratzeko zailtasunak.	Elkarreraginerako estrategiak barneratzea erraztu.

Iturria: http://www.uam.es/personal_pdi/psicologia/cmessina/PPT/relaciones_iguales.pdf

2.2.4. Internet eta erabilpen desegokiak

Internetek gaztetxoetan duen rola, bere ezaugarrien garapenarekin loturik dago (ezagutzak eskuratzeko eta bizipenak izateko kuriositatea). Hauek dira Internetek ahalbidetzen dizkien funtzioak:

- Haien galderen erantzuna lortzen dute.
- Informazio azkarra lortzen dute.
- Lagunekin kontaktuan mantentzen dira.

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

- Dibertitzen dira.

- Batzuen kasuan Internet haien bizitzan lagungarria izan daiteke, beste batzuren kasuan estimulaturik sentitu daitezke. Estimulazio hau online bizi ditzazketen egoera positiboen ondorioz gertatzen da: besteengatik onartua/baloratua sentitzea, jokoetan ona izatea, denbora librearen erabilpena...

Estimulazio honek hutsune bat bete dezake bizitza “errealean” gaitasun sozialetan hutsune bat duten haurretan. Honek adikziorako arrisku gehiago izatea ekartzen du.

Interneten erabileraren aurrean, bestalde, haur edo gaztetxoek estrategia ezberdinak sortzen dituzte, hauetako batzuk adaptatiboak eta beste batzuk desadaptatiboak izanik.

Adaptazio estrategien artean autokontrola, lehentasunak ezartzeko gai izatea eta Internetetik kanpoko aukerak bilatzea litzateke. Desadaptatiboen artean aldiz, gurasoen kontrolari uko egitea, egoera normalizatzea (Interneten denbora asko ibiltzea normalizat hartzea) eta bere eragileraren lehentasun bezala ikustea.

Internetek, batez ere adoleszenteen artean, adikzioa sortzeko aukerak ematen ditu eta garrantzitsua da erabiltzaile moten profilak aztertzea adikzio hori prebenitzeko. Adikzioari dagokionez, hauek dira A. Tsitsika, E. Tzavela, F. Mavromati and the EU NET ABD Consortium (2012) elkarteak *“Investigación sobre conductas adictivas a Internet entre los adolescentes Europeos”* txostenean ematen diren azalpenak:

Internetetikiko jarrera adiktiboa, Interneten erabilera kontrolik gabekoan oinarritzen da; honek isolamendua, erlazio sozialen, ekintza akademikoen, osasunaren eta higie pertsonalean utzikeria ekar ditzakeelarik.

Adikzioa izan dezaketean, duten edo izan dutenen profil ezberdinak daude, ezaugarrien arabera eta larritasunaren arabera. Profilak honekoak dira:

a) Sarera itsatsirik dagoena. Honen ezaugarrien artean Interneten erabilera gehiegizkoa eta beste errutinen utzikeria agertzea daude. Online ekintza espezifikoak eramaten ditu aurrera eta antsietatea bezalako efektuak izan ditzake erabili ezin badu.

b) Antolatua. Eguneroko aktibitateak eta Internet orekatzen saiatzen da. Honek estresa sortzen dio bietan ekiteko sentitzen duen beharragatik.

c) Etapa bat bezala ikusten dutenak. Interneten erabilera gehiegizkoa. Aldaketa progresibo eta adaptatiboa, eta autoerregulazio bidez ikasleak berak gutxitzen duena. Eragin negatiboak dituela konturatu eta zerbaitek motibaturik erabilera gutxitzen du.

d) Denbora pasa. Internet bere denbora betetzeko aukera bat bezala ikusten du. Ez du motibatzen duten beste ekintza alternatiborik eta aspertzearen erreakzio automatiko bezala erabiltzen du Internet.

A eta D profilek tratamendu zailagoa izango dute, B eta Dk aldiz, adinari dagozkioen autokontrol ezarekin loturik daude eta seguraski bakarrik autoerregulatuko dira denbora pasa ahala.

2.3 Aspektu pedagogikoak eta irakasle lanbidearekin duen harremana

Irakasle lanbidearekin duen harremana ikuspuntu desberdinetatik aztertu daiteke. Lehenik legediaren markoari dagokionez, Espainiako hezkuntza jarduna arautzen duen legedian, zehazki LOEren 1. artikuluan, hezkuntzarako printzipioak azaltzen dira. Haien artean hau aurki dezakegu:

“Hezkuntzak ikasleek dituzten gaitasunen, interesen, etorkizunerako aukeren eta premien aniztasunera, eta ikasleengan eta gizartean gertatzen diren aldaketetara egokitzekeo malgutasuna.”(LOE, 2006)

Hau ikusirik, argi dago, irakasleen eginkizunetako bat ikasleengan zein gizartean gertatzen diren aldaketetara, kasu honetan Internetek izan duen eraginera, egokitzekeo malgutasuna izatea printzipio bezala jarraitu beharrezko zerbait dela.

Hau honela, irakaslea eskola inklusiboaren parte den irakaslea dela kontuan hartu behar da. Eskola eredu honek eredu soziala defendatzen du eta hauek dira ezaugarri bereizgarrietako batzuk:

- Pertsonen eskolan zein komunitatean aurkitzen dituzten ikaskuntza eta parte-hartzearentzako oztopoak gainditzeko dituen eskola.
- Haur talde baten ezaugarriei erantzuteko nola aldatuko den pentsatzen duen eskola.
- Gizarteratze printzipioan sinisten duen eskola.

Irakasle bezala funtzio funtsezkoenetako bat ikasleak hezitzea da, eta azken finean sozializatzea, gizarteko kide aktibo bihurtzea. Hau honela izanik, oso garrantzitsua da alde batetik haiek ongi ezagutzea eta bestetik haiek bizi diren gizarte ingurunea ulertzea.

Tutorearen esku- hartze eremuak zehaztu baino lehen tutoretzaren definizioa zehaztuko dugu. Tutoretzak ikaslearen hezkuntza integrala helburu izanik, ikasleari bere garapen- eremu guztietan laguntzeko ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin egiten diren ekintzak dira. Tutoretza lanarekin zuzenean loturiko oinarrizko gaitasunak honakoak dira (LOE, 2006):

- Gaitasun soziala eta herritartasuna: gaitasun honi esker, bizi garen gizartearen errealitatea ulertzen dugu, eta gai gara lankidetzan aritu, elkarrekin bizi, gizarte anitz batean herritartasun demokratikoaren arabera jokatu eta gizarte hobetzeko konpromisoa hartzeko. Parte hartu, erabakiak hartu, egoera jakin batzuetan nola jokatu hautatu eta hartutako aukeren eta erabakien erantzukizuna hartzea ahalbidetzen diguten ezagutzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu.
- Ikasten ikasteko gaitasuna: Ikasten ikasteko beharrezkoa da ikasten hasteko trebetasunak izatea, eta baita nor bere helburuen eta beharren arabera gero eta modu autonomoagoan eta eraginkorragoan ikasten jarraitzekoak ere
- Autonomia eta ekimen pertsonala: Gaitasun honen osagaietako bat elkarri lotutako balio eta jarrera pertsonal batzuen kontzientzia-hartze eta erabilera (adibidez, erantzukizuna, jarraikitasuna, autoezagutza eta autoestimazioa, sormena, autokritika, emozioen kontrola) hautatu, arriskuak kalkulatu eta arazoei aurre egiteko trebetasuna, hala nola beharrak berehala asetzeko premia atzeratu, akatsetatik ikasi eta arriskuak kontuan hartzekoa.

Honetaz gain, ikasleen gaitasunen artean, IKTekin (Informazio eta Komunikazio teknologiak) eta era berean Internetekin loturiko gaitasun bat ere bada:

- Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala: Gaitasun hau informazioa bilatu, lortu, prozesatu, komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunean datza. Trebetasun batzuk hartzen ditu barne, informazioa bilatzetik hasi eta hura tratatu ondoren euskarri desberdinen bitartez transmititzearekin

bukatuta, barne hartuz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informatu, ikasi eta komunikatzeko funtsezko elementua baita.

Nire lanerako tutoreak eta era konkretuago batean honek bete beharreko tutoretza rolak funtsezko garrantzia du, funtzio honen bitartez ematen baita irakasle eta gurasoen arteko komunikazio eta elkarrekintza, hezkuntza komunitate moduan ikasleen garapen egoki bat eman dadin hildo batzuk definituz eta batzuk besteetaz hornituz.

Bestalde, tutorearen edo *tutoretza lanaren esku- hartze eremuak* honako hauek dira:.

Ikasle bakoitzarekin dituen esku- hartzeak:

- Ikaslearen harrera egin eta integrazioa bultzatzea.
- Lan-ohiturak sustatzea.
- Ikaslearen garapena eta egokitzapena

Ikastaldearekin dituen esku- hartzeak:

- Taldearen antolamendua
- Taldearen funtzionamendua

Familiekin eta ingurune sozialarekin dituen esku- hartzeak:

- Familien parte-hartzea
- Ingurunearen inplikazioa

Irakasle taldearekin dituen esku- hartzeak:

- Koordinazioa
- Ebaluazioaren prozesua

Behin irakasle den aldetik dituen esku- hartze eremuak zein diren ikusita haietako bakoitzean zer eginkizun bete beharko dituen azalduko da, arreta berezia jarriz ikasleekiko eta familieekiko eginkizunari.

Familiaekiko dituen esku- hartze eremuak bi dira, familien parte- hartzea eta ingurunearen inplikazioa. Landuko den gaian berebiziko garrantzia izango duten aspektuak dira, tutoretza ekintzaren bitartez familien formazioan eta hauek haien seme- alaben heziketan kooperatiboki inplikatzea ekarriko baitu.

Tutorearen eginkizunak:

Tutoretza ikastetxeak eta bertako profesional guztiek egiten duten jarduera multzoa da ikasleen osoko prestakuntza eta gizarteratzea bultzatzeko asmoz, bana-banako nahiz talde esparrura bideratua, garapen pertsonaleko alderdi garrantzitsuei (emozionario hezkuntza, autoestimua, autoezagutza...), hezkuntza-eta lanbide orientabideari eta bizikidetzari heltzen diena (Besalú eta Tort).

Tutoretzak eta orientabideak osoko hezkuntzari laguntzen diote pertsonaren gaitasun guztien garatze osoa eta orekatua helburu nagusia izanik. Osoko prestakuntza deritza pertsonaren gaitasunen garapen ahalik eta handiena xede duen prestakuntzari, dimentsio kognitiboaz gain pertsonaren gainerako dimentsioek parte hartzen dutena.

- Ikasleekin
 - Taldeko kohesioa bilatzea
 - Arazoei aurre egitea eta arazoak konpontzea.
 - Ikasleei eskolako beren bilakaeraz aholku eman eta orientatzea.
 - Ikasleen partaidetza jarrerak suspertzea, taldean eta eskolako bizitzan.
 - Ikasleek ikaskuntzan dituzten zailtasunei kasu egitea.
 - Ikasleen arazo eta kezka bideratzea.
- Irakasleekin
 - Gelan esku-hartzen duten irakasleekin koordinatzea
 - Koordinatzea irakaskuntzako nahiz helburu osagarriko jardueren programazioa.
 - Orientatzailearekin eta laguntzako irakasleekin batera koordinatzea, hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak dituzten ikasleentzako curriculum egokitzapenak egiteko.
- Familiekin
 - Familiekin etengabeko harremanetan egotea.
 - Ikasleen bilakaeraren eta gurasoen jakin behar duten guztiaren berri ematea.
 - Maixu-maistren eta ikasleen gurasoen arteko hezkuntza-lankidetzaren erraztea.
- Ikastetxean

- Tutoretza eta hezkuntza orientabideko plana garatzen laguntzea.
- Bere kargura dituzten ikasle guztien eskola-agiriak betetzea.
- Urteko Programazio Orokorrean islatzea.

Ikusi ditugun eginkizun eremuen artean, ikasleekin eta familiekin dituen eginkizunetan zentratuko naiz.

Ikasleekin dituen eginkizunen artean ikasleek ikaskuntzan dituzten zailtasunei kasu egitea zein arazo eta kezkak bideratzea dago. Hau honela, Internet ere haien bizitzako arloetako bat izanik, eta lortu beharreko gaitasunen artean egonik, Interneten erabileran izan ditzaketeen kezkak zein zailtasunak bideratzeko modu ezberdinak egon daitezke, hala nola, gurasoei informazio eta baliabideak ematea edo haiekin zuzenean Internetekin erlazionaturiko aspektuak lantzea.

Gurasoekin dituen eginkizunen artean bestalde, tutorea familiekin etengabeko harremanetan egotea da. Honek informazioa elkarbanatu eta ikasleen bilakaera hobeto bideratzen lagunduko du, bai eta hauek modu osatuago batean ezagutzen ere (etxean dituzten bizipenak eta eskolan dituzten bizipenak bateratu). Maixu- maistren eta ikasleen gurasoen arteko hezkuntza- lankidetzak eman behar da, honakoan Interneten erabileran hezterako orduan emanen da lankidetzak hau. Guraso eta tutorearen artean ildo batzuk finkatuz ikaslearen erabilera egokia bideratu eta Internetek eman ahal dizkion onurak aprobetxatzea errazagoa izango da, bai gurasoak bai tutoreak gaiaren inguruan informatuak egongo direlako.

3. Taula. Tutorearen jardueraguneak.

EREMUAK	JARDUERAGUNEAK		
Ikasleen harrera eta integrazioa	Harrera eta aurkezpen-jarduerak		Taldean integratzeko jarduerak
Taldearen antolamendua eta funtzionamendua	Ikasleei buruzko informazioa biltzeko ekintzak. <i>Kasu honetan ikasle hauek Interneten</i>	Gelaren antolamendurako eta funtzionamendurako jarduerak	Taldea sustatzeko jarduerak

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

		<i>egiten duten erabilera eta gurasoek ematen dioten erantzunari buruzko informazioa jasotzen da.</i>			
Lan-ohiturak eta norberaren zaintza		Oinarrizko ohiturei lotutako jarduerak	Arloetan lan egiteko arauak.	Arlo bakoitzean pentsatzen irakasteko estrategiak	
Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena	Autoestima bultzatzeko jarduerak	Sexu-nortasuna garatzeko jarduerak	Genero-nortasuna garatzeko jarduerak	Gizarte-trebetasunak garatzeko jarduerak	Gatazkak konpontzeko jarduerak
Aurreko jarduerak Sareko eta orokorrean sozializazio egoeren aurrean gaituagoak egoten lagunduko diete ikasleei, bai beren ongizatean bai besteenean eragin zuzena izanik.					
Familiaren parte-hartzea	<i>Familiarekin bilerak egitea, taldeka</i>		<i>Bakarkako elkarrizketak</i>		
Ikasleekin egiteko ebaluazio-jarduerak	Ikasleekin egiteko ebaluazio-jarduerak		Gainerako irakasleekin ebaluatzeko eta koordinatzeko jarduerak		

Familiarekin bilerak taldeka zein bakarka izan daitezke. Taldekako bileretan guztien intereseko izan daitezkeen taldeari dagozkion gaiak landu edo hitz egiteko izan daitezke, baita gurasoen artean esperientziak edo kezkek elkarbanatu eta denen artean irtenbideak bilatzen saiatzeko. Honetaz gain, taldekako formazio tailerrak egiteko ere erabil daitezke.

Banakako bilerak ikasle konkretuari buruz hitz egiteko erabiliko dira gehienbat, arazo edo gai konkretuago edo zehatzagoak lantzeko.

Bestalde, Ikastetxeko mundua ikasgela kanpoko munduarekin erlazioan egon behar da eta parte hartzea, pentsamendu kritikoa eratzea eta ekimen pertsonala bultzatzea ezinbestekoak dira irakasle lanean, ikasle autonomoak eratzeaz batera.

3. GARAPENA / DESARROLLO

3.1 Ikuspegi historikoak / Perspectivas históricas

Como Trinidad. A & Gómez. J (2012) comentan en su libro *“Sociedad, familia, educacion. Una introducción a la sociología de la educación”* tanto el aumento como la diversificación cada vez mayor que los medios de comunicación tienen en la sociedad contemporánea, ha supuesto que la influencia que estos tienen en la socialización sea cada vez mayor, siendo hoy día uno de los principales agentes de socialización junto a las familias y la escuela. Este cambio ha hecho que la sociedad actual haya sido nombrada con nombres como sociedad digital, sociedad de la información, sociedad del conocimiento, sociedad de la comunicación...

Uno de los primeros sociólogos en emplear la palabra *“sociedad del conocimiento”* fue Daniel Bell (1991). En su libro *The Future of Technology* (2001) aporta una visión de lo que las nuevas máquinas o tecnologías han aportado a la sociedad. A esta tercera revolución tecnológica la denomina tecnología intelectual.

4. Taula. Las tres revoluciones del cambio social según D. Bell

	Sociedad preindustrial	Sociedad industrial	Sociedad post-industrial
Periodo	Hasta 1765	Desde 1765-1970	1970- ...
Tipo de tecnología	Tecnología y trabajo manual. La palanca, la rueda, la bomba manual...	Tecnología a vapor y tecnología eléctrica que conlleva un enorme incremento de la fuerza.	Tecnología intelectual. La información es codificada en sistemas de tecnología comprensiva.

Fuente: Bell, D. (2001) *The Future of Technology*

Otro de los sociólogos que ha estudiado la Sociedad de la Información es M. Castells. En su libro *La Galaxia internet* (2001) expresa que Internet o la Red es el componente esencial y el centro de la era de la información, y a su vez, de la sociedad actual. Además de esto considera la información signo de una nueva forma de organización social.

Autores como M. McLuhan (1964) ven en los nuevos medios de comunicación y la sociedad de la información una oportunidad para la comunicación global y el paso a que cualquiera pueda comunicarse sin límites de tiempo ni espacio, sin embargo, hay otros que no tienen la misma perspectiva acerca del tema. Entre ellos nos encontramos a G. Orwell (1984) el cual considera la nueva era de la información como una cárcel electrónica, la cual posibilita una vigilancia y control de la multitud ilimitada.

Diversos investigadores han estudiado el impacto que han tenido los TIC (Tecnologías de la información y la comunicación) en la vida humana, y especialmente en la población infantil y juvenil, la cual ha nacido rodeada de este tipo de dispositivos tecnológicos. A este tipo de público es común llamarlos “nativos digitales” (Prezsky, 2001) *persona que ha nacido rodeada de las nuevas tecnologías y que, desde los primeros años de su vida está habituado a utilizarlas*. Éstos amenudo están mejor alfabetizados digitalmente que su entorno adulto (madres, padres, profesores/profesoras...). A estos últimos es habitual llamarlos por el nombre de “inmigrante digital” (Prezsky, 2001) *persona que no ha crecido rodeado de las nuevas tecnologías y que, por diversas razones, ha tenido que aprender a utilizarlas*. Esto supone una brecha digital entre jóvenes y adultos, la cual puede suponer riesgos si estos últimos no ponen los medios suficientes para adquirir ciertas competencias y educar a los menores en la utilización segura y enriquecedora de las TICs.

Los primeros estudios que analizaron la influencia de los medios de comunicación, se enfocaron en estudiar los medios en sí. En la segunda década en cambio, se empezó a poner atención y estudiar la manera en que los receptores reaccionaban ante el mensaje de los medios.

Según la teoría hipodérmica que se creó en el siglo XX “los mensajes de los medios actúan como estímulos que afectan directamente y de forma homogénea a todos los

individuos". Esto daba a entender que los receptores eran personas pasivas y manipulables.

Más tarde, alrededor de las décadas 40 y 50, este tipo de discurso se fue desvaneciendo, dando lugar a otra nueva mentalidad, en la cual se planteaba que los mensajes transmitidos por los medios de comunicación podían ser interpretados de manera diferente según la persona que los recibiera. Esto hizo que la investigación acerca de los medios se extendiera a distintos campos: quién emitía el mensaje (estudio sociológico sobre los medios de comunicación), qué mensaje se emitía (análisis del contenido de los mensajes), qué canal se utilizaba para ello (aspectos técnicos), quién descodificaba el mensaje (el público) y qué efectos y valoraciones podía causar dicho mensaje.

Por otro lado, es importante tener en cuenta que recibir la información es sólo una parte del proceso comunicativo, y que no es posible controlar los efectos que un mensaje puede provocar en una persona sin saber como esa persona los estructura y les da sentido.

Teniendo en cuenta lo dicho, y dado que controlar los medios de comunicación es una tarea imposible para el docente, el objetivo del docente debe ser el de educar a esos receptores que son los niños, frente a los medios de comunicación.

Los medios de comunicación e información suponen dos tareas en el sistema educativo. Por una parte, abarcarlo como objeto de estudio desde el punto de que es un ámbito de socialización al cual los jóvenes le dedican mucha parte de su tiempo. A este tipo de educación Fernández Prados J.S lo llama educarse en o para los medios. Y en segundo lugar, como sujeto activo que está suponiendo un cambio en el sistema educativo, los que Fernández Prados J.S denomina como educando con los medios.

Por otra parte, hay que tener en cuenta el cambio que ha supuesto pasar de la web 1.0 a la web 2.0, con el que se ha pasado de simplemente obtener información a poder participar y que la red sea interactiva.

5. Taula. Diferencias entre la web 1.0 y la web 2.0

	Web 1.0	Web 2.0
Rol de navegante	Pasivo e individual	Activo y colaborativo
Tratamiento de la información	Centralizada y estática	Descentralizada y dinámica
Dirección de la información	Unidireccional	Multidireccional
Producción y origen de la información	Producción individual y fuentes limitadas	Producción compartida y fuentes múltiples
Software	Instalable y tradicional	En línea (<i>cloud computing</i>)

Fuente: Fernandez Prados, J.S (2012)

3.2 Esparru kontzeptuala / Marco conceptual

Adaptacion curricular: proceso de toma de decisiones acerca de los elementos curriculares (elementos de acceso o preceptivos), con el fin de dar una respuesta educativa a las necesidades de los/las alumnos/alumnas.

Adicción: hábito que domina la voluntad de una persona. Se trata de la dependencia a una sustancia, una actividad o una relación.

Agentes de socialización: grupos o medios por los cuales el individuo se adapta a la convivencia colectiva o se socializa. Entre los agentes socializadores tenemos los explícitos como la familia o la escuela y los agentes implícitos, tales como Internet.

Brecha digital (Digital divide): hace referencia a la diferencia socioeconómica entre aquellas comunidades que tienen accesibilidad a Internet y aquellas que no, aunque tales desigualdades también se pueden referir a todas las nuevas tecnologías de la información y la comunicación (TIC), como el ordenador personal, la telefonía móvil, la banda ancha y otros dispositivos. Como tal, la brecha digital se basa en diferencias previas al acceso a las tecnologías. Este término también hace referencia a las diferencias que hay entre grupos según su capacidad para utilizar las TIC de forma eficaz, debido a los distintos niveles de alfabetización, carencias, y problemas de accesibilidad a la tecnología.

Conducta adictiva a Internet (CAI) es definida como un patrón de comportamiento caracterizado por la pérdida de control sobre el uso de Internet. Esta conducta conduce potencialmente al aislamiento y al descuido de las relaciones sociales, de las actividades académicas, de las actividades recreativas, de la salud y de la higiene personal.

Familia: la familia es una estructura viva y única, que participa y da forma al aparato mental de cada uno de sus miembros, sobre todo en lo que respecta a los niños. (Thomas, 1987)

Inmigrante digital (Prensky, 2001): persona que no ha crecido rodeado de las nuevas tecnologías y que, por diversas razones, ha tenido que aprender a utilizarlas.

Intimidad: La intimidad es la zona abstracta que una persona reserva para un grupo acotado de gente, generalmente su familia y amigos. Sus límites no son precisos y dependen de distintas circunstancias. Aquellos actos y sentimientos que se mantienen fuera del alcance del público forman parte de la intimidad o privacidad de una persona.

Medidas ordinarias (de atención educativa): son aquellas medidas en las que no se modifican elementos del currículo (cuando no se modifican los contenidos, objetivos y criterios de evaluación). Por ejemplo: la acción tutorial, la opcionalidad, los programas de refuerzo...

Nativo digital (Prensky, 2001): persona que ha nacido rodeada de las nuevas tecnologías y que, desde los primeros años de su vida está habituado a utilizarlas.

Red social: toda red social se fundamenta en “la teoría de los seis grados de separación”, por la que cualquier individuo puede estar conectado con otra persona del planeta a través de una cadena de conocidos que no supera en más de seis el número de intermediarios (Frigyes Karinthy, 1929)

Red social (en Internet): aplicación online que permite a los usuarios, de forma completamente descentralizada, generar un perfil público, compartir información, colaborar en la generación de contenidos y participar de forma espontánea en movimientos sociales y corrientes de opinión.

Socialización (Guy Rocher, 1980): proceso por cuyo medio la persona humana aprende e interioriza, en el transcurso de su vida, los elementos socioculturales de su medio ambiente, los integra a la estructura de su personalidad, bajo la influencia de experiencias y de agentes sociales significativos, y se adapta así al entorno social en cuyo seno debe vivir.

Videojuegos: dispositivo electrónico que, a través de ciertos mandos o controles, permite simular juegos en la pantalla de un televisor, un ordenador u otro dispositivo electrónico.

3.3 Autoreen ikuspegi arrazoituak

Autoreen ikuspegien atala hiru ataletan banaturik azaltzen da, lehenik Interneti buruzko ikuspegia landuko da, jarraian bideojokoetan zentratu diren autoreen ikuspegia eta azkenik sare sozialen gaia landuko da.

Internetek, bere garaian telebistak egin zuen bezala, itxaropenak zein beldurrak piztu ditu eta honek haurren zein gaztetxoengan duen eragina aztertu eta honi buruzko iritzia eman dutenak asko dira, eragin honen alderdi positibo zein negatiboez hausnartuz. Beste edozein gaietan bezala, ikuspuntu positibo eta negatiboak daude, aukerak edo arriskuak...Azken finean gaurkotasun handiko gaia denez, garrantzitsuena honen inguruko informazioa eskuratu eta haurrei dagokionez erantzun egokiena ematea da helburua. Atal honetan Interneti buruzko ikuspegia era orokorrean eta jarraian joko eta sare sozialei konkretuki dagokien ikuspegia azalduko dira.

Gaiaren inguruan hausnartu duen autoreetako bat José Cervera (2005) dugu, zeina teknologia berrietan aditua den. Hau da berak Internet eta haurren erlazioan helduok izan behar dugun eskuhartzeari buruz ematen digun ikuspegia:

Interneten arrisku eta gauza mingarriak daudela adierazten du, baina bizitza errealean ere horrela gertatzen dela uste du, oraindik modu eskuragarriago batean gainera (haurrentzat desagokiak diren irudiak, adierazpen arriskutsuak, jende desagokia...). Hein handi batean, Interneteko mundua ez da arriskutsua, baina beti badira sahiestu beharreko guneak. Honek ez du esan nahi haurrei Sareko erabilera sahiestu behar zaienik, baizik eta bere inguruko helduen eginbeharra dela haien seme- alaba zein ikasleei arrisku horiek maneiatzen irakastea. Etorkizunari begira ez diete batere

laguntzen, beldurrak hartuta, haien seme- alabei Interneten esperientzia moztzen dieten gurasoek. Haurrak sarean erabiltzen ez hezitzea irrespontsabilitatea litzateke bere ustez.

Berak adierazten duen bezala, ezin gaitezke paranoiko jarri baina ezin dugu ezeztatu sarean arriskuak daudela. Arrisku zibernetikoak (birusak, spyware...), osasunari dagozkionak (suicidio, anorexia zein bulimiari buruzko web- orriak), kulturalak (holokaustoaren ezeztatzaileak, superstizio mitologiaren hedatzaileak, sektak) eta ekonomikoak (hala nola, estafak).

Haurrei egin diezaioken min handiena jende ezezagunek proposatutako hitzorduek egin ahal dioten min fisiko eta emozionala da.

Hau honela, arazotik ihes egin baino aurre egin behar zaio gure gaztetxoei lagundu nahi ezker. José Cerverak (2005) dioenez:

“El riesgo del que hablamos existe también (multiplicado por mil, y complicado por autobuses y pasos de cebra) en la calle, pero no prohibimos salir a nuestros hijos. Les enseñamos a cruzar calles, a respetar semáforos, a tener cuidado con los autobuses, a no aceptar caramelos de extraños”. Cervera, J. (2005). *La culpa es de lo padres*.

Bai, gure haur eta gaztetxoak babestu behar ditugu, baina haiek beren kabuz babesten erakustea ere garrantzitsua da, haiek modu autonomoz jokatu eta kritikoak izaten irakatsiz.

Sareari dagokionez gauza bera egin behar dugula adierazten du. Gaur egun haurrei Sarera sarbidea guztiz moztea haien etorkizuneko bizitzari oztopoak jartzea da, etorkizunean sarea erabiltzen jakitea baliabide ezinbestekoa izango baita egingo duena edozer dela ere.

Beraz, arazoari aurre egiteko modua honakoa da: haurrei sarea erabiltzen erakustea irizpide batzuk eta segurtasuna erabiliz. Honetarako beharrezkoa da guk (helduok) ere haiekin batera ikastea eta eredu ematea, haiekin akatsak egin eta haietatik ikasiz. Seme- alabek eta ikasleek gure eskutik ikasi behar dute mundu hau ezagutzen.

Laburbilduz, autore honen ustetan, ezin ditugu pantailik gabe hezi baizik eta hauek erabiltzeko beharrezko baliabide eta herramientak eman, haiek erabilera egoki bat egin dezaten erakutsiz.

Frantziako Zientzietako Akademia ere Internet aztertzeari lotu da. Bereziki haurrak eta bideojokoen arteko erlazioa aztertu eta honi buruzko hausnarketak ere aditzera eman ditu.

Zientzietako Akademiak honek argitaraturiko "L'enfant et les écrans"(2013) txostenak, pantailek haurren garunean duten efektua analizatzen saiatu da. Bere egileak Jean François Bach (Frantziako Zientzietako Akademiako partaide eta Paris- Descartes Unibertsitateko irakaslea, immunologian espezializatua), Serge Tisseron (psikiatria, psikologia eta psikoanalisian doktoretza eginikoa), Olivier Houdé (Paris- Descartes Unibertsitateko psikologoa) eta Pierre Lèna (astrofisiko eta hezkuntza eta zientzia aditua) izan ziren.

Ondorietako batean bideojokoek, helduen gainbegiratzearekin, efektu positiboa dutela adierazi zen. Houdé irakasleak dioenez, adibide bat jartzearren, bideojokoek ikusmen atentzioaren gaitasuna hobetu eta helburuaren identifikazioa sustatzen du, bai arreta eta erabaki hartzearen abiadura handitu ere, beste gaitasunen artean. Jean-François Bachen ustetan, sarritan ikusten ditugu aspektu negatiboak, pantailek planteiaturiko ardurak, baina aspektu positibo asko omen daude.

Txostenak dioenez, kultura digitala eta <<klasikoa>> ren arteko konbinazioa egin behar da. Olivier Houdéren ustetan intelijentzia digitala kultura literario klasikoa baino azkarrago eta anitzagoa izan daiteke, zeina mantsoago baina sakonagoa den. Baina bi kulturak ez dira bateraezinak, eta gure haur eta gaztetxoek biak konbinatu eta maneiatzeko gaitasuna lortu ezkeru, aurreko belaunaldietan pentsaezinak ziren gauzak egin ditzazkete.

Esaten duenez, pantailekiko egokitze hau modu egokienean eman dadin, adin bakoitzerako pedagogía egokitu bat beharko litzateke, haurren garunaren heldutasunaren eta garapen kognitiboaren araberakoa.

Internet eta bideojokoen munduaren alderdi negatiboaz aldiz honakoa diote, pentsamendu azkarregi eta azalekoa garatzea, hau da, digitala ez den edozein

gauzekiko interesa galtzea. Serge Tisseron-en ustez, sahiestu behar dugun akatsetako bat gure haur eta gaztetxoek teknologiak haien odolean daramaten zerbait dela pentsatu eta haien aurrean bakarrik uztea da. Hala ere, adierazten du, ez dugula pentsatu behar haurretan babestu behar den gauza babesgabe bat bezala, baizik eta gaitasun eta desio batzuk dituzten haurrak bezala.

Bestetik, Tisseronek garrantzia ematen dio teknologia berriek erlazio sozialei ematen dizkion aspektu sortzaile eta positiboak.

Bideojokoan eragina aztertu duten beste egile batzuen artean Nafarroako Unibertsitateko medikua den Fco Jacier Lavilla Royo dugu, nork Clinica Universidad de Navarrako weborrian gai ezberdinei buruzko osasun aholkuak ematen dituen bere idatzietan, hala nola *“Vuelta al colegio”* eta *“consejos para dormir mejor”*. Bere *“Videojuegos y los niños”* lanean ikuspegi klinikoago batetik bideojokoan erabilerak ekar ditzazkeen kalteak eta onurak azaltzen ditu. Hauek Interneten edo pantailen erabilerarekin ere lotura zuzenean daude.

Esan bezala, Fco Javier Lavilla Royo, Nafarroako Unibertsitatea osasun zentroko medikua da eta bideojokoan erabilerak ekar ditzazkeen ondorioak aztertzen ditu bere idatzietako batean, eragin negatiboak, gehiegizko erabilerak sortutako arazoak, edukiarekin erlazonaturiko arazoak, ekonomikoki izan dezakeen eragina, eragin positiboak eta aholkuak ere ematen ditu.

Batetik, nahiz eta aztertzen ari garen adin tartean adikzio arazoak oraindik oso ohikoak ez diren, kontrolik gabeko erabilera prebenitzeak garrantzi handia dauka. Berak dioenez, haur eta gazteen bizitzan desordena sor dezake bideojokoan gehiegizko erabilerak. Hala ere, kontrolik gabeko erabilera hori ez da bapatean ematen, argi dago. Progresiboa dela dio: hasieran, bideojokoan erabilera puntuala da, baina erabilera handituz doa egunerokotasunean barneraturiko zerbait izan arte.

Puntu horretara iritsiz eta adikzioa handitu ezker, ludopata izatera iritsi daiteke, gezurretara ere joz. Beste ekintzei denbora ken diezake: kirolari, irakurketari, lagunekin gelditzeari... Batzuetan aislamendua ere ekar dezake, eta honekin indibidualtasunaren indartzea, azken finean, ez baita gauza elkarbanatzeko ohiturara

egokituko. Muturreko kasuetan haurren benetazko munduaren ihesa ere ematen da, mundu birtualean itxiz.

Lavilla Royok (2012) jokoarekin erlazionaturiko eta eskolarekin erlazioan dauden beste sintomak ere definitzen ditu, dioenez:

“La atención puesta en el juego desarrolla un agotamiento y un cansancio del sistema nervioso con aparición de síntomas de depresión o ansiedad. Se produce en esos casos un deterioro en el rendimiento académico significativo apreciándose defectos en la capacidad de atención y un desinterés llamativo por las actividades escolares” Lavilla Royo, F.C. (2012) *Videojuegos y los niños.*

Esaldian aipatu bezala, joko adikzioak eta honetan jarritako atentzioak nekea garatzen du nerbio- sisteman eta depresio eta antsietate sintomak ekar ditzazke, eskola errendimenduan eraginez.

Bideojokoen gehiegizko erabilera sendentarismoarekin ere lotu izan da, zeinak haur edo gaztetxoaren osasunean eragina izan dezakeen.

Erabilera jarraituarekin eman daitezkeen beste sintomak fisikoak begietako mina izan daiteke, bideojokoari jartzen zaion atentzioa eta pantailaren aurrean pasatzen den denbora dela eta. Buruko minak ere normalak dira haurren begiko zorrotasuna zuzendurik ez badago.

Bestalde, posturari dagokionez, jokuetan hartzen diren postura desagokiak direla eta, muskuluetako mina eta akats posturalak ere ager daitezke, eragin txarra dutenak hazten dagoen organismo batetan. Eskuetako edo eskumuturreko oinazeak ere ikusi izan dira, tendinitis garapena zein tendoien inflamazioa.

Bideojoko hauen edukiak ere eraginak izan ditzake haurren osasunean, eta bereziki haiek garapenean duten imajinazioan. Lavilla Royok dioen bezala *“Si se centra el interés en un determinado tipo de juegos, la práctica de los mismos se vuelve repetitiva limitándose la creatividad del niño o adolescente llevando a una verdadera atrofia de la capacidad imaginativa”* Lavilla Royo, F.C. (2012) *Videojuegos y los niños.*

Hau da, joku mota berdinarekin erabilerak haurren imajinazio gaitasuna mugatu dezake.

Biolentzia edukiak dituzten jokoak (gerrateak, kaleko biolentzia, ibilgailuek harrapatzea...) bereziki kaltegarriak dira, eduki razista zein sexista dutenekin batera (adibidez, emakumea sari bezala duten jokoak). Bideojoko mota hauek garapenean dagoen izaera edo pertsonalitatean jokabidea patologikoak sor ditzakete. Kontuan izan behar dugu, adin honetan, beste gauzen artean, oso garrantzitsua direla ematen dizkiegun modelo edo ereduak.

Nahiz eta jokoen gehiegizko erabilera bat haurrentzat kaltegarria den, jokoen erabilera kontrolatu batek alderdi positibo edo indarguneak ere badituztela argi dago.

Aspektu sozialei dagokionez lagunen edo adinekoen artean jokoen elkarbanatzeak kontaktu soziala eta amankomuneko aktibitateak konpartitzea ekar dezake. Bestetik, haurren izaera eraikitzeari dagokionez, sari bat lortzeko helburu bat jarraitzeak, hau lortzeko intentzioa jarri eta saiakerak egitea eragiten du, honek konstantzia izateko gaitasunean lagun dezakeelarik. Honen inguruan Lavilla Royok adierazten duen beste gauzetariko bat honakoa da:

“El niño perderá en muchas ocasiones, así se puede aumentar la tolerancia frente al fracaso y la conciencia de la importancia de poner el empeño en intentarlo de nuevo cuando no se consigue algún objetivo”. Lavilla Royo, F.C. (2012) *Videojuegos y los niños*.

Bestalde, jokoak onuragarriak dira esku eta begien arteko koordinazio hobetzerako orduan, gaitasun motoretan lagunduz. Memoria eta kontzeptuak barneratzeko gaitasuna hobetzen du, bai eta zenbakizko kontzeptu eta koloreen identifikazioa.

Sare sozialei dagokionez, hau da Jorge Flores-ek (2010) Pantallas Amigas-eko zuzendariak adierazten duena: “El uso seguro de Internet debe estar incluido en el currículo escolar”. Sare sozialen erabileraren arrisku handienetako bat eduki edo pertsona mingarriekin aurkitzea da, jendearen arteko erlazio ia konpultsibo bat dagoelako. Adingabeak lagundu behar ditugu Sarea hiritar digital arduratsu bezala nola erabili behar deneko baloreak garatzen. Gurasoak teknologiarara gerturatu behar dira haien seme- alaben bizitza ezagutzeko.

Gaiarekin jarraituz, Interneteko sare sozialek gaztetxo eta familietan dituzten efektu positibo zein negatiboei aurre egiteko, American Academy of Pediatricsek (AAP) txosten bat azaleratu zuen 2011ean *The Impact of Social Media on Children, Adolescents, and Families* deiturikoa. Bertan, Gwenn O’Keeffek dioenez, zenbait gazttxorentzat sare sozialak haiek sozialki elkarreragiteko duten modua da. Gazttxoen garapen sozial eta emozionalaren zati bat Internet eta telefonoen bidez ematen da eta hori kontuan hartu behar dugun aspektu bat da.

Aipatutako txostenak dioenez Interneteko sare sozialetan parte hartzeak komunikazioa hobetu dezate, elkarrekintza soziala erraztu eta zenbait gaitasun teknikoren garapenean lagundu. Hauek gazttxoei bide eman diezaiekete komunitatean parte hartu eta haien identitatearen zentzua eratzten.

Hala ere, gazttxoek duten auto- erregulazio gaitasuna mugatua dela eta arrisku bat suposa dezake, honen gehiegizko erabilera eta honek ekar ditzakeen arriskuak kontuan izanik. Lagunen presioarekiko duten sensibilitatea beste arrisku faktore bat izan daiteke, sare sozialetan dituzten elkarreraginetan haiengan eragin dezaketen gauzak egon daitezkeelako.

Edukiei dagokionez, haien adinerako desegokiak diren leku edo egoeretan aurkitzea ere haietan negatiboki eragin dezake (pertsonek ezezagunak, adinerako desegokiak diren bideo edo ikus- entzuneko edukiak...).

Bestalde, protegeles.com weborrian (haurrak eta gazteak eta Interneti buruzko babesa lantzen duen webgunea) bi hilabetero argitaratzen duten aldizkarian sare sozialetan ager daitezkeen arrisku eta gazttxoentzako aholkuak ere aditzera ematen dira. *“Dime a quien agregas y te diré quien eres”* artikuluan gazttxoek eman diezaioketen erabileraz diardu.

Artikuluak dioenez, gazttxoetako askorentzat, beren perfilean dituzten “lagun” kopurua besteek berataz duten pertzeptzioa alda dezakela uste du. Hau arazo larriagoa da, gehien ematen den adin- tartea gazttxoena dela dakigunean, honek ekar ditzakeen arriskuak kontuan izanik. Sare sozialetan formaziorik ere ez duten haurrek ezezagunak baieztatzen dituztenean, bai eta lagun gonbidapenak bidaltzen hasten direnean lagun kopurua handiagotzeko.

Hau haiekin landu beharreko gai bat dela adierazten da, edozein perfilen atzean benetazko pertsona bat badagoela, bere gustu eta desioekin, eta bere intentzioekin, onak zein txarrak izan.

Ekintza honek haien intimitate edozeinen eskura jartzeko arriskua dakar. Honetaz gain, profilean baieztatutako horiei “lagun” izendapena ezartzen zaie, ez bakarrik ezagunak edo kontaktuak. Honek inkoszienteki gure defentsak jetsi eta gaitasun kritikoa jeisten du, konfidantza eta intimitatea partekatzeko erreztasunak jarriz.

Batetik garrantzitsua da haiekin lagun eta ezezagunen arteko ezberdintasuna neurtzen erakustea. Eta bestetik, lagunaren artean ere mugak ezarri behar direla erakutsi behar zaie. Honetarako haiekin jarri eta zer gauza onartzen dituzten eta zein ez idatz ditzatela proposa daiteke, adibidez.

Baina gaztetxo guztiak ez dira berdinak eta hiru taldetan bereizten ditu. Lehenengo taldean, haien profil pribatuan edozein gehitzen ez duten gaztetxoak daude, horrela direlako edo horrela jokatzeko heziak izan direlako. Beren profiletan gelako lagunak zein familiarrak aurkituko ditugu. Bigarren taldean, “edozein” gehitzen duten gaztetxoak ditugu, batzuetan “lagun” kopuru gehiago izateko lehiatuz. Hau da arriskua duen taldea, zeina modu inkonsziente batez bere intimitatea edozeinekin partekatzen duen eta argazkiak zein iruzkinak erabat egiten ari den besteen atentzioa mantentzeko. Hirugarren taldeak (orokorrean jende helduagoak osatzen duten profila izaten da) “lagunetan” edozein baieztatzen du, baina argazki gutxi igotzen dituzte eta igotako argazki askotan ez dira haiek protagonistak.

Lagun pila horri dagokionez, hau da artikuluauren autoreak dioena:

“Tener un perfil privado con 200, 300 ó 500 “amigos” resulta casi una incongruencia. Y cuanto más joven sea el internauta, menor será su capacidad para prever lo que tantos “amigos” harán con su información”. Canovas. G & González. D (2013) *Dime a quién agregas y te diré quién eres*. Revista navitos digitales, 16-18.

Honakoa adierazten du, hainbat ikerketek gizakiok erlazio osasuntsu kopuru jakin bat kontrolatzeko gai garela adierazten dutelako.

4. Errealitatera gerturatze bat (atal praktikoa).

4.1 Ikerketaren aurkezpena

Ikerketa hau aurrera eramateko erabilitako materiala inkesta presentzial bat izan da, zeina ikasleei bideraturiko galdeketa zen. Inkesta Nafarroako Lekunberri- Larraungo Lehen Hezkuntzako 3. zikloko bi mailetan egin zen eta sexua adieraztea eskatu zitzaizen, honela bi aldagaien eragina aztertze aldera; batetik, adina eta bestetik, sexua. Bertan bai galdera kuantitatibo (adibidez; etxean ordenagailurik bazuten) zein kualitatiboak (adibidez; Interneten zein alderdi positibo ikusten zizkioten) zuten lekua. Honetaz gain, inkestak 28 galdera ditu, batzuk erantzun itxia dutenak (aukera anitzeko galderak) eta besteak erantzun irekiagoa dutenak (haiek idatziz erantzun beharko dituztenak).

Inkestaren datuak hobetze aldera, hau da, fidagarriagoak izate aldera, datu bilketa bitartean (ikasleek inkesta betetzen duten bitartean) ni gelan nengoen, edozein duda izan ezkeru zein zehaztapen eman behar ezkeru laguntza izan zezaten, eta galderak ongi ulertu zitzaizten. Honetaz gain, bakoitzak berea egin zezala adierazi zitzaizen, haien artean kopiaketak sahiesteko helburuarekin.

Ikerketa egiterako orduan jarraitutako pausuak hauek izan dira.

A. Gaiaren aukeraketa.

Landutako gaia pantailen erabilera, zehazki Interneten erabilera, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan ikasleen ikuspegitik.

Ikerketarako gai interesgarria iruditu zait, batetik gaurkotasun handiko gaia delako eta honetaz gehiago ezagutzeak ekarpen interesgarriak ekar ditzakeela uste dudalako. Gaiaren aztergai bezala Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak aukeratzea haien garapen momentuarengatik izan zen. Ikasle hauek trantsizio momentu batean daude, haurtzaro eta adoleszentzia bitarteko momentu horretan, eta aztertze garai erakargarria iruditu zitzaidan. Trantsizio hori komunikabideei dagokionez nola ematen den aztertzeak interesa piztu zuen nigan.

Bestalde ikasleen errealitatea zein den zehatzago ezagutzea irakasle lanaren eginbehar garrantzitsuenetako bat dela uste dut eta irakasle bezala ekarpen garrantzitsuak egin

ditzake, gizartea hobeto ezagutzen duen aldetik ikasle horiek gizarte horretako partaide aktibo izateko prestaketan lagunduko dio.

Ikerketa gaia ikasleen ikuspegitik dago bideratuta, haien erantzunetatik hasi eta haiek ulertzen duten modua zein den ikusteko, bitartekaririk gabe.

B. Ikerketaren aztergaia eta helburuak:

Ikerketa honen aztergaia Nafarroako Lekunberri- Larraun bailarako Lehen Hezkuntzako 3. zikloan Interneten erabilera zein den aztertzea da.

Ikerketarako aztergaia aukeratzerako orduan zenbait gauza hartu nituen kontutan. Batetik, Lekunberri- Larraungo bailara gertukoa eta ezaguna dudalako, azken finean, eskola eta ikasle horiek kokatzen diren testuingurua ezagutzen dudalako. Bigarrenik, azken eskola praktikak bertan egin nituen, eskola eta bertako ikasleak ere ezagunak ditut. Azkenik, konkretuago Lehen Hezkuntzako 3. zikloa aukeratzearen arrazoia, lehen aipatu bezala haurtzaro eta adoleszentzia bitarteko trantsizio hori gaiari dagokionez interesgarria izan zitekeela pentsatzen nuelako da.

Gaia ulertzeko bestalde, zenbait kontzeptu definituko ditut, Interneten gaia ulertze aldera eta zenbait datu interpretatzerakoan lagungarriak izan daitezkeelako.


Programa erabilienetako batzuk honako hauek dira:

- Google: 1998an sorturiko konpainia estatubatuarra da, Larry Page eta Sergey Brink sortua. Munduko bilatzaile erabilienaz hitzegiteko erabili ohi da.
- Youtube: erabiltzaileei bideoak igo zein ikustea ahalbidetzen duen webgunea, 2005ean Chad Hurley, Steve Chen eta Jawed Karimek sortua eta 2006an Google konpainiak erosi. Bideoak ikustea ahalbidetzen du ordenagailura jeitsi beharra gabe.
- Sare sozialen artean erabilienetako batzuei buruzko datu batzuk definitzea ere garrantzitsua da.
- Tuenti: erabiltzaile gazteei zuzenduriko eta web 2.0an oinarritutako sare soziala da. 2006ko urtarrilean sortu zuten Félix Ruiz, Joaquín Ayuso, Adeyemi Ajao, Kenny Bentley eta Zarey Dentzelek. Bertako erabiltzaile izateko gonbidapen bidez izan daiteke soilik.



1. Irudia. Tuentiri buruzko zenbait datu.

- Facebook: Mark Zuckerbeegek sorturiko sare sozial bat da. 2004ko Otsailean sortu zuen. Hau da erabiltzaileen profila adinari dagokionez:



2. Irudia. Facebookeko erabiltzaileen adinak.

Twitter: 2006garren urtean Estatu Batuetan sorturiko gizarte-sare zerbitzua da, bere erabiltzaileei testu luzera mugatuko mezuak bidaltzea ahalbidetzen diena (140 karaktereko gehienezko luzerarekin), bat-bateko mezularitza, Twitterren webgunearen bidez.

MSN Messenger Microsoft-ek 1999 sorturiko binakako zein taldeko bat-bateko mezularitzan aritzeko aplikazio ezaguna da, 2007an Windows Live Messengerek ordezkatu.

Gmail: 2004ean publikoari irekiriko Googleko mezularitza zerbitzua, denboraren poderioz zerbitzuak hobetu eta zabaldu dituena.

Skype: 2003garren urtean Niklas Zennström sueziarrak eta Janus Friis Danesak sortua. Internet bidez deiak eta bideodeiak egiteko dohako aplikazioa.

6. Taula. Sare sozialen laburpen taula.

Plataforma	Helbidea	Ezaugarriak	Erabiltzaileen profila	Erregistroa
Tuenti	www.tuenti.es	Lagunekin kontaktuan egon, jokoak, irudiak elkarbanatu...Espainian oso erabilia.	Nerabeak.	Gonbidapen bitartez 14 urtetik gorakoentzat
Facebook	www.facebook.es	Lagunekin harremanetan egon eta gauzak elkarbanatzeko.	25- 34 urte bitarteko tartea da gehiengoena.	Irekia 14 urtetik gorakoentzat
Twitter	www.twitter.es	Testu laburrak hedatzeko gunea.	35- 44 urte bitarteko tartea da gehiengoena.	Irekia
Google (Gmail)	www.gmail.com	Txata duen posta elektronikoa.		Irekia
Skype	www.skype.com	Deien/bideodeien bidez zein idatziz komunikatzeko gunea.	Gehienbat beste herrialdeetako ezagunekin komunikatu nahi diren erabiltzaileak	Irekia 18 urtetik aurrera.

Lagina beraz, Lekunberri- Larraun bailarako LH 3. zikloko (LH 5. maila eta LH 6. maila) ikasle guztiak izan dira.

7. Taula. Lagina.

	LH 5	LH 6
Neskak	12	12
Mutilak	10	8
Guztira	42 ikasle	

Helburu konkretuago hauek izanik:

1. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleek etxean Internetera sarbidea baduten jakitea.

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

2. Internet erabilera edukiei dagokionez nolakoa den aztertzea.
3. Interneten erabileran haien lehentasunak zein diren ezagutzea.
4. Interneten egiten duten bideoen kontsumoari dagokionez, zer bideo mota kontsumitzen dituzten ezagutzea.
5. Interneten ibiltzen dituzten jokoei dagokionez, zer joko mota kontsumitzen dituzten ezagutzea.
6. Aurretik aipaturiko aspektuetan sexu edo adinarekin erlazionaturiko ezberdintasunik badagoen aztertzea.
7. Interneti etxekolanetarako ikusten dioten erabilgarritasuna zein den ikustea.
8. Interneten mundua haien ikuspegitik nolakoa den jakitea, haien ikusten dituzten alderdi positibo zein negatiboak zein diren aztertuz.
9. Sare sozialen erabilera orokorturik dagoen ezagutzea.
10. Sare sozialek eskeintzen dituzten zerbitzuen artetik gehien erabiltzen dituztenak zein diren jakitea.
11. Sare sozialen erabilera nolakoa den aztertzea eta hauen inguruko haurren balorazioa ezagutzea.

C. Gaiaren inguruan burutu diren ikerketak eta dagoen informazioa:

Gaiari buruzko ikerketei dagokionez, Espainian zenbait ikerketa egin dira komunikabide eta haurren arteko erlazio hori aztertu nahian. CISek 2000garren urtean *“La televisión y los niños: hábitos y comportamientos”* ikerketan Espainiako haurrek telebistaz egiten zuten kontsumoa nolakoa zen aztertu zen, baina nire inkestan ez bezala, gurasoen bitartekaritzaz lortu ziren datuak, hau da, gurasoei eginiko galderen bitartez. Ikerketa horretan, denbora, edukiak, gurasoek zuten jarrera, beste ekintzetan zuen eragina, gurasoek egiten zuten kontsumoa eta telebistaz egiten zuten balorazioa ere bildu ziren.

Bestetik, familiek haur eta pantailen artean egiten duten bitartekaritzari dagokionez badaude aspektu hau aztertu nahi izan duten lanak, hala nola, 2004ean Llopis Goig R-k azaleraturiko *“La mediación familiar del consumo infantil de televisión. Un análisis referido a la sociedad española”*.

2008. urtean, Ruiz San Roman J.A-k *“Niños y pantallas. Oportunidades y retos de una relación en transformación”* argitaratu zuen, non telebistaren eragina modu kritikiko

batez landu zuen teknologiaren soziologia kontutan hartzearen garrantzia azpimarratuz. Aurrerago, 2009an Telefonicak bere *La generación interactiva de España. Niños y adolescentes ante las pantallas* lanak ez bakarrik telebistak baizik eta haur eta gazteek pantaila ezberdinen aurrean (Internet, bideojokoak, mugikorra zein telebista) zuten erabilera eta erlazioa aztertzen zuen, eskola eta familia kontuan harturik.

Pantailen erabilera edo kontsumo konkretuagoei bideraturiko ikerketak ere badaude, hala nola 2011ean J. I. Imaz Bengoetxeak eginiko *“Pantallas y educación: adolescentes y videojuegos en el País Vasco”* lana, Euskal Autonomi Erkidegoko gaztetxoek bideojokoen munduaz egiten zuten erabilerari buruzko ikerketa. Bertan gazte euskaldunen bideojokuen erabilera kuantitatiboa egin zuen eta jokuen hezkuntza-erabilera edo erabilera pedagogikorantz bideratu zuen, tailer batzuk diseinatu eta hauek errealitatean zuten erantzuna frogatuz.

Bestalde, nahiz eta gehien bat adoleszentiari bideraturik dagoen, A Tsitsika, E Tzabela, F. Mavromati eta EU NET ADBren artean oso ikerketa interesgarria egin zen Europako nerabeen internetekiko jarrera adiktiboari buruz.

D. Helburuen garapena:

- Hau da errealitateri buruz aurreikusten duguna eta jarraian agertuko diren hipotesiak frogatzen saiatuko gara ikerketa honen bidez:
 - Interneten erabilera, gaztetxoek artean, orokortua dago.
 - Herri txikiak ikasleen Interneten erabilera anitza da.
 - Ikasleen gehiengoak Internet etxean erabil dezake, inora joan gabe.
 - Etxean ordenagailua dutenen gehiengoak Interneta dauka.
 - Lagunek eta adin berekoekin erlazioak izateak adin tarte honetan hartzen duen garrantziak Interneten erabilpenean ere bere islada du.
 - Neska eta mutikoen Interneteko jokoen erabilera ezberdina da edukien aldetik.
 - Sexuaren arabera Internet komunikatzeko erabiltzen dutenen portzentaia aldatu egiten da.

- 10- 13 urte bitarteko haurrak normalean ez dira gurasoekin ibiltzen Interneten.

Ikerketan kontuan hartuko diren aldagaiak honakoak dira:

Aldagaiak:

- Familiei buruzko aldagaiak:
 - Familia motak: egituraren arabera
 - Familia motak: jokatzeko moduaren arabera. Arautze gradua: Denboran/ Edukietan.
 - Seme alabekin elkarreragina: asko, gutxi, ezer
 - Internet erabilera (eredu mota): asko, batzuetan, ia inoiz, inoiz
- Hurrei buruzko aldagaiak:
 - Neska/mutila
 - Adina
- Kontsumo- gaiari (Internet) buruzko aldagaiak:
 - Eduki mota
 - Kantitatea
 - Alderdi positiboak eta negatiboak.

E. Aukera metodologikoen azalpena: teknika kualitatibo eta kuantitatiboen zehaztapena.

Hasteko beste pantaila ezberdinen inguruan egindako ikerketetan jarraitutako galdera moten azterketa egin zen.

Ondoren, formatu idatziko inkesta egitea aukeratu nuen. Lortu nahi ziren datuak eta inkestaren helburuak kontuan izanik, inkesta galdera kuantitatibo (hala nola, etxean zenbat ordenagailu zituzten) zein kualitatiboz (adb; sare sozialen erabilera) osatu zen, erabileraz gain haien ikuspegia ere bilduko zuen informazioa lortzeko asmoarekin. Inkestak 28 galdera ditu, batzuk itxiagoak dira (aukera anitzekoak) eta beste batzuk ordea, galdera irekiagoak dira, non haien erantzuna idatzi behar zuten.

Jarraitzeko, behin inkesta osaturik zegoela eskolari baimena eskatu eta inkesta egiteko eguna adostu zen. Lehen adierazi bezala, ikastetxeko LH 5. Eta LH 6. mailako ikasleei

pasa zitzaien inkesta. Ikastetxean LH 5 zein LH 6 mailetan lerro bakarra dago eta lehenik LH 5. mailan pasa zen eta behin hor bukatuta LH 6. mailan.

Inkesta dinamika moduan aurkeztu zitzaien. Lehenik, LH 5. gelan sartu eta inkestaren gaiari buruz hitzegin zen, haiek egingo zuten inkestaren nondik norakoak ulertu zitzaten. Ondoren aspektu formalei dagokionez hitzegin zen, nola bete behar ziren galderak eta zein izango zen haiei erantzuteko modua. Galderei erantzuterako orduan haien artean ez kopiatzeko ere adierazi zitzaien, hau da, lagunari zer jarri ez galdetzeko. Honekin, erantzunak egiazkoagoak izatea bultzatu nahi zen. Jarraian, bakoitzari inkestaren kopia bat banatu zitzaien.

Nahiz eta azalpenak aurretik eman, edozein duda zein zehaztapen behar izanez gero, inkesta presentziala izan zen, hau da, ni bertan egon nintzen edozein arazo edo oztoporen aurrean hobeto erantzuten lagunduko zieten azalpen indibidualak emateko. Irakaslea ere gelan bertan egon zen. LH 6. mailan ere dinamika bera jarraitu zen.

Kontuan hartu beharrekoa da ikasleen jarrera ezin hobea izan zela. Egoera ezohikoa izanik eta haientzako gai interesgarria zela eta, interes handia jarri zuten jarduera hau aurrera eramaterako orduan (galderak ongi ulertzen ez zituztenean galdetu, ongi beterik zegoen galdetu...).

Behin inkestak eginik, datuen bilketa egin nuen, eta honekin batera eta datu adierazgarrienak zein ziren kontuan izanik datuen antolaketa grafika zein beste euskarrietara pasa nuen.

Azkenik, informazioaren azterketa egin eta hauetatik ateratako ondorioak zehaztu ziren.

4.2 Emaitzen azalpena eta balorazioa

Lagina: Inkesta Ibarberri eskolako (Lekunberri, Nafarroa) Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei pasa zitzaien. Lehen Hezkuntzako 5. mailako 22 ikasle (12 neska eta 10 mutil) eta LHko 6. mailako 20 ikasleri (12 neska eta 8 mutil) egin zitzaien inkesta.

Ikasle hauen etxeko egitura familiarrari dagokionez, ikasleen gehiengoa bizi den familia mota, familia nuklearra da, hau da, haren gurasoekin eta anai-arrebekin (baldin baditu) bizi da etxean. Baina badira baita gurasobakarreko edo guraso bananduak dituzten

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

familietan bizi diren haurrak zein oraindik ere familia zabalduetan bizi direnak ere (aiton-amonek edota osaba izebak ere haiekin bizi diren familiak).

8. Taula. Laginaren familia motak

	Ikasle kopurua	Portzentaia
Familia gurasobakarrak edo gurasoak bereziak dituztenak.	4	%9
Familia nuklearra: aita eta amarekin bizi direnak.	35	%83
Familia zabaldua (aiton-amonak edota osaba-izeba)	3	%8

Anai-arreba kopuruari dagokionez, bestalde, ikasleen gehiengoan kasuan bi senide dira etxean.


9. Taula. Seme-alaba kopurua etxean

	Ikasle kopurua	Portzentaia
Seme- alaba bakarra	3	%7
2 anai- arreba etxean	30	%71
3 anai- arreba etxean	8	%20
4 anai- arreba etxean	1	%2

Etxeetan ordenagailua badagoen.

Lehenengo bildutako datuetako bat etxean ordenagailurik (edo tabletik) bazuten zen eta honek Internet konexioa bazuen. Honekin, sarera heltzeko baliabideak ze puntutaraino dituzten neurtu ahal dugu.

1. Grafikoa. Ordenagailua kopurua etxean



Datuak azterturik, ikus dezakegu etxean ordenagailua duten ikasleen ehuneko oso altua dela %97 (ikasle bakarrak ez du ordenagailurik etxean, baina beste leku batean erabiltzen du). Eta ikasleen gehiengoak etxean ordenagailu batetik hirura bitarte ditu. Bestetik, etxean ordenagailua duten ikasleen %97k (ikasle batek ez du konexioa) badu Internet konexioa. Beraz, ondoriozta dezakegu, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleen gehiengoak sarera sarbidea baduela etxean. Honekin esan dezakegu, Interneten erabilera oso hedatua dagoen zerbait dela eta ia ikasleen ehuneko ehunaren bizitzaren parte dela.

Ordenagailuaren kokapena etxean

Interneten ordenagailuaren erabilera non ematen den galderari dagokionez, ikasleen gehiengoak ez du erabiltzen Internet bere gelan edo ez da sarera sartzen bere gelan, nahiz eta ikasleen herenak gelan ordenagailua duen edo portatilarekin gelan sarera sartzen diren.

10. Taula. Gelan ordenagailua dutenen portzentaia

Ez dute ordenagailurik gelan erabiltzen	%67 (28 ikasle)
Gelan ordenagailua erabiltzen dute	%33 (14 ikasle)

Ordenagailua eta Internet konexioa gelan izateak haurra edo gaztetxoa kontrol edo bideratzerik gabe uzten du, bai denboraren aldetik (gurasoek etxekolanak egiten ari dela uste dezakete) bai edukien aldetik ere.

Sarbidea eta segurtasuna

Sarbidea eta segurtasunari dagokionez, ikasleen gehiengoak ez du babes programik ordenagailuan edo ez daki babes programik baduen.

11. Taula. Segurtasuna ordenagailuan


Babesa du	%21 (9 ikasle)
Ez du babesik	%37 (15 ikasle)
Ez daki	%42 (17 ikasle)

Datuetan ikus dezakegun bezala Internet babesari dagokionez, ez da ohikoena haurrentzeko babes programak erabiltzea, honek haurrak bere gelan edo gurasoen laguntzan ez dagoenetan edozein edukiren haurren babesik gabe uztea eragiten du.

Gurasoen laguntza Internet erabiltzerako orduan

Ikasleei ordenagailuan normalean norbaitekin egoten ziren galdetzerakoan ikasleen gehiengoak (%78) ezetz adierazi zuten. Baietz adierazitakoan artean orokorrean familiako kideren batekin (ahizpa, arreba, lehengusuak, gurasoak, izeba) edo lagunakin egoten dira. Internet erabiltzean gurasoak beraiekin ze maiztasunekin egoten ziren galdetzean hauek izan ziren ateratako datuak:

2. Grafikoa. Gurasoen laguntza Internet erabiltzerakoan



Datu hauetatik ondoriozta dezakegu, ikasleen gehiengoa orokorrean ez dela ordenagailuaren aurrean bakarrik egoten dela.

Behin datuetatik ikasleen gehiengoa normalean ordenagailuaren aurrean bakarrik egon ohi direla ikusita, ekintza bitartean komunikaziorik ez dagoela ondoriozta dezakegu, ezta haien jardura bideratzen edo ikuskatzen duenik ere (betiere ikasleen objetibotasunetik aterako datuak direla kontuan hartuz). Hau jakinik, eta hurrekin komunikazioa mantentzeak duen garrantzia oinarri, ekintza bitartean ez bada ere, gurasoekin Interneten ibiltzen direnaren inguruan hitz egiten ote duten galdetzerakoan ateratako datuak azertu ditzazkegu.

12. Taula. Gurasoekin komunikazioa Interneten ibiltzen direnaren inguruan

Interneten ibiltzen zarenaren inguruan hitz egiten duzu zure gurasoekin?	LH 5	LH 6	Totalaren %
Beti	1	0	%2
la beti	1	4	%12
Batzuetan	9	6	%36
la inoiz	8	2	%24
Inoiz ez	3	8	%26

Batzuetan gaiari buruz gurasoekin hitzegiten duenaren taldea jendetsuena da, nahiz eta asko diren gurasoekin Interneten dabilzanaren inguruan ia inoiz edo inoiz hitzegiten ez dutenak.


Datuetan ikus dezakegunez, ikasleen erdiak gurasoekin hitzegiten du internet dabilenaren inguruan (gehienek batzuetan, ez beti) eta beste erdiak ez du inoiz ez edo ia inoiz hitzegiten.

Hemendik ondoriozta dezakeguna zera da, nahiz eta zenbait ikasleek Interneten dabilzanaren inguruan haien gurasoekin hitzegiten duten, asko direla gurasoekin gaiari buruz inoiz edo ia inoiz hitzegiten ez dutenak, eta aurreko datuei hau gehituz gero, asko dira Internet gurasoekiko era isolatuan bizitzen dutenak (ez beren gurasoekin ibili ez haiekin gaiari buruz hitzegin).

Erabilpen denbora

Ikasleen Internet erabiltzen igarotzen duten denborari dagokionez, ikasleen gehiengoa asteen 2-3 aldiz edo egunero (ordu bat baino gutxiago) dabilza.

3. Grafikoa. Interneten erabilpen denbora



Beraz, esan dezakegu, ikasleen Internet erabilera ez dela gehiegizkoa.

Denbora (gurasoen eredu mota)

Gurasoen erabilera galdetzea bi aspektugatik irudi zitzaigun garrantzitsua aztertzea. Batetik, ikasleek bere gurasoen zer eredu duten ikusteko, eta bestetik, haien gurasoek

Internet ohiko erabiltzaileak diren jakiteko. Kontuan izan behar dugu, datu hauek ikasleen subjektibotasunetik ateratakoak direla, nire ikerketaren helburuetako bat gaia haien subjektibotasunetik aztertzea izan delako. Ikasleen arabera, haien gurasoen Internet erabilera honela ebaluatzen dute:

13. Taula. Gurasoen internet erabilera haurren ikuspegitik.

Interneten erabilera	Guraso kantitatea	Portzentaia
Asko	16	%38
Batzuetan	16	%38
Ia inoiz	7	%17
Inoiz ez	2	%5
Ez du erantzun	1	%2

Datuetan ikus dezakegunez, ikasleen gehiengoak haien gurasoen erabilera batzuetan edo asko dela adierazten dute, honela ikusiz agian haien artean egongo den ezberdintasuna hasieran uste bezain ez dela izango.

Edukien kontrola eta orientazioa gurasoen aldetik

14. Taula. Edukien kontrola gurasoen aldetik

Edukien kontrola	LH 5	LH 6	Guraso kopurua	Portzentaia
Beti	1	0	1	%2
Batzuetan	5	1	6	%15
Ia inoiz	9	7	16	%38
Inoiz ez	6	11	17	%41
Erantzun gabe	1	1	2	%4

Orokorrean, ikasleek diotenez gurasoek ez dituzte inoiz edo ia inoiz zer programatan ibili behar diren orientatzen. Nahiz eta ikus dezakegun LH 5. mailako ikasleak gehiago orientatzen dituztela "batzuetan" aukeran 5 baitaude LH 6ko batekin konparatuz.

15. Taula. Erabilpen denboraren kontrola gurasoen aldetik


Denboraren kontrola	LH 5	LH 6	Guraso kopurua	Portzentaia
Bai	4	1	5	%12
Batzuetan	12	14	26	%62
Ez	6	5	11	%26

Ikasleen gehiengoari batzuetan kontrolatzen diote Interneten pasatzen duen denbora.

Lehentasunak Internet erabiltzerako orduan

Interneta sartzeko honen zer erabilera egiten duten adierazterakoan, hauek izan ziren haiek adierazitako lehentasunak.

4. Grafikoa. Lehentasunak Interneten




Aukera hauetatik gain, gutxiengo batek erabilera hauek ere ematen dizkio interneti: etxekolanetarako, argazkiak/irudiak ikusteko, albisteak ikusteko, skypen ibiltzeko eta makinariari buruzko webgunean sartzeko.

Lehentasun hauetatik ondoriozta dezakegu, adin honetan hasten den adin berekoekin loturak sortzeko eta taldearekiko behar hori. Hau da adin honetan berdinekin komunikatzeko agertzen den beharrari dagokio, komunikazioak hartzen duen paperaren adierazle garbia izanik.

Sexuari dagokionez, komunikazioari dagokion aspektuan eta Internet honetarako erabiltzean aldaketak daude neska eta mutilen artean, nahiz eta hauek oso nabarmenak ez izan. Neskengan komunikatzeko nahi hori zertxobait gehiago nabarmentzen da mutiletan baino.


5. Grafikoa. Lehenetasunetan dauden ezberdintasunak sexuaren arabera.



Ikus dezakegunez, nesken artean lagunekin hitzegitea gehiago nabarmentzen da. Gainontzekoan ez dago ezberdintasun nabarmenik, futbolean ezik, non mutilen artean Interneten erabileraren zati handiago bat den.

Bideo motak:

6. Grafikoa. Ikusten dituzten bideo motak



Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Grafikan ikus dezakegunez, Internet bidez bideoak ikusten dituztenean, nesken kasuan mutilen kasuan baino askoz gehiago ikusten dituzte bideoklipak zein musika bideoak, mutilen artean, ordea, banatuago daude haien gustuak. Bi sexuek amankomunean duten bideo mota ikusiena txantxak edo bideo barregarriak dira.

Joko- jolas motak

Nesken artean aipatu zituzten joko-jolas motak hurrengoak izan ziren: etxeak egiteko, txapelketak (2 erantzun), intelijentziakoak, plataformak (6), Moda (2), zainketakoak (3), abentura ,sukaldaritza, kotxeak aparkatzekoak, puzzleak, pentsatzekoak eta zinetakoak(2).

Mutilen artean aipatu zituzten joko-jolas motak hurrengoak izan ziren: plataformak(4), simulador, borrokak (6), abentura, sukaldaritza, motoenak eta kirola (4) izan ziren.


Ikasleetako bostek jolasetan ibiltzen ez direla adierazi dute.

Joku-jolas motetan ikus dezakeguna zera da, neskek eta mutilek plataforma jokoak gustoko dituzte. Behin horietatik kanpo mutilek gustokoen dituztenak borroka eta kirola dira, eta nesken artean aldiz zainketakoak, moda eta txapelketak.

Etixerako lanetarako erabilgarritasuna

Internet etxerako lanetarako erabilgarria zen galdetzerakoan hauek izan ziren erantzunak:

7. Grafikoa. Etxerako lanetarako erabilgarritasun haurren ikuspegitik.



Ikasleen gehiengoak erabilgarritasuna ikusten dio Interneti etxerako lanak egiterako orduan, %21ak erabilgarritasun gutxi edo ezer ikusten dio Interneti etxerako lanak

egiterako orduan. Honekin ikus dezakegu, nahiz eta haiek orokorrean modu ludiko batean erabiltzen duten, beste ekintzetarako erabilgarria izan daitekeela badakitela.

Interneten alderdi positibo eta negatiboak:

Alderdi positiboak: lagunekin hitzegitea (12 erantzun), bideoak ikustea(5), gauzetan laguntzen dizu, traktoreak, informazioa (14), kirol orrialdeak daudela, gauzak bilatzeko/dudak(8), ikasteko balio duela, dibertigarria dela (5), sare sozialetan egotea(2), jokuak (6), gauza askotarako balio du(2), munduan gertatzen ari dena jakitea, urrutiko jendearekin edo familiarekin hitz egin ahal duzula (2), musika entzun(3), musika eta filmak deskargatzeko(2), etxekolanak egiteko.

Alderdi negatiboak: batzuetan arriskutsua dela (5), jendea biluzik ikusi ahal duzu, ezer (2), notizia gehiegi, birusa (13), jende perbertidoak hitzegitea (3), sare sozialetako arriskuak(3), programa batzuk ez dira seguruak, asko balio du, piztea kostatzen zaio (3), asko ibiltzea (2), bullying egiten dutela, ezagutzen ez duzun norbaitek zure argazkiak ikusi ahal dituela, bideo txata pixkat arriskutsua dela, zure sekretuak deskubritu ahal dituztela, bijilatu ahal dizutela(3).

Alderdi positiboen artean gehien errepikatzen direnak honako hauek dira: informazioa bilatu ahal dela (14), lagunekin hitzegin daitekeela (12), gauzak/dudak bilatu ahal dituzula (8) eta jokuak (6).

Alderdi negatiboen artean aldiz, birusak izan dira errepikatuenak (13), ondoren arriskuak (8) eta bijilantzia (3).

Sare sozialak eta besteekin kontaktua:

8. Grafikoa. Sare sozialik duten ikasleen portzentaia.




Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Sare sozialik bazuten galdetzerakoan ikasleen %86ak sare soziala duela adierazi zuten. 42 ikasleetako 6k soilik ez zuten sare sozialik.

Besteekin komunikatzerako orduan erabiltzen zuten programak zein ziren galdetzerakoan hauek izan ziren portzentaiak:

9. Grafikoa. Komunikatzeko erabiltzen dituzten programa motak.



Ikus dezakegunez gehien erabiltzen duten sare soziala Tuenti dela, nahiz eta berez, haien adinarekin ezin diren sare sozialetan sartu eta beste adin bat adierazten dute hori egin ahal izateko.

Gurasoek sare sozialetan dabiltzan dakiten galdetzerakoan ikasleen %100ak adierazi zuten haien gurasoek bazekitela sare sozialetan zebiltzala.

Sare sozialetako alde positiboak eta negatiboak

Ikasleen arabera hauek dira Sare sozialetan ikusten dituzten alde positibo eta negatiboak.

Sare sozialen alderdi positiboak : lagunekin hitzeging(26), ongi pasa, jokuetan ibili(4), beste herrialdeetako lagunekin/familiarekin hitz egin (3), gauzetaz enteratu (2), argazkiak ikusi/igo/komentatu(4), zerbait galdetu, mezuak bidali(1), ez dela ordaindu behar, gauza pribatuez hitz egin ahal dela(2), urrutiko pertsonekin videotxata erabili, dibertitzen zarela,

Sare sozialen alderdi negatiboak: iraindu, besteen argazkietaz farre egin, batzuetan arriskutsua (3), jende txarra ezagutu(5), zure argazkiak beste bati bidali ahal dizkiotela(2), jende perbertidoa, jendea oso txoro dagoela, jende ezezagunarekin kontuz ibili behar dela (2), hitzegiten ari zaren pertsona beste bat izan daitekeela(2), denuntziatu ahal dela (4), bromak egin ahal dizkizutela (2), ez dut alde txarrik ikusten(2), kontraseña ahaztea(3), spywareak, heldu batzuk engañatzen dutela umeekin “egon” nahi dutelako, konfunditu eta beste batekin hitzegitea, asko bijilatzen zaituztela(2),

Orokorrean, gehien errepikatzen diren alderdi positiboak lagunekin hitzegitea (26), jokuetan ibiltzea eta argazkiak ikusi, igo zein komentatzea dira. Alderdi negatiboek dagokienez, aldiz, gehien errepikatzen direnak jende txarra ezagutzea (5), denuntziatu ahal dela (4) eta kontraseña ahaztea dira.

Ikus dezakegunez, bai besteekin interakzionateko bai jolasteko dituzte oso gustoko eta ikasleen gehiengoak konsziente da sare sozialek arriskuak izan ditzazketela.

Balorazio orokorra

Elkarrizketatuen perfil familiarri dagokionez, %83 familia nuklearrean bizi da, %9 gurasobakar edo bereziak dituzten familian eta %8 familia zabalduan. Anai- arreba kopuruari dagokionez, ikasleen %71aren kasuan 2 senide dira etxean eta batez beste etxeetan dauden anai- arreba kopurua 2,17koa da.

Sarbideari dagokionez, ikasleen %97ak ordenagailua du etxean eta hauen artean ikasle bakarra dago Internet sarbiderik ez duena. Ordenagailuaren kokapena etxean non den galderari dagokionez, gehienek ez dute ordenagailurik gelan erabiltzen baina heren batek bai. Datuak antzekoak dira Telefonikak eginiko *Generaciones interactivas en España* ikerketan, non 6-9 urte bitarteko ikasleen artean gelan ordenagailua zutenen portzentaia %28 da eta 10-18 bitartekoen artean %36. Segurtasunari dagokionez, ikasleen gehiengoak (%79) ez du babesik edo ez daki babesik duen. Normalean Sarean norbaitekin ibiltzen diren galdetzerakoan, %78ak ezetz adierazi du eta gurasoen laguntzarekin ibiltzen diren galdetzerakoan %69 inoiz edo ia inoiz adierazi du, nahiz eta 5. mailako ikasleen kasuan gurasoen laguntza handiagoa dela ikus daitekeen.

Komunikazioari dagokionez, ikasleen %36ak Interneten ibiltzen denari buruz gurasoekin batzuetan hitzegiten duela adierazi du, nahiz eta asko diren ia inoiz edo inoiz ez hitzegiten ez dutenak (guztira %50).

Denborari dagokionez, adierazi dutenaren arabera ohikoena astean 2-3tan edo egunero ordu bat baino gutxiago erabiltzea da, haien erabilera gehiegizkoa ez izanik.

Gurasoek ematen dieten ereduari dagokionez, ikasleen gehiengoak (%76) haien gurasoek Internet batzuetan edo askotan erabiltzen dutela uste dute, haien gurasoek ia inoiz edo inoiz ez ibiltzen direnak aldiz, gutxi dira (%22= 9 ikasle).

Nahiz eta ikasleen gehiengoari haien gurasoek batzuetan denbora kontrolatzen dieten, edukiei dagokionez oso gutxi adierazten dute kontrolik dagoenik (5. mailan edukien kontrol gehiago dagoen arren).

Interneten ikasleek dituzten lehentasunei dagokionez, lagunekin hitz egitea, bideoak ikustea, informazioa bilatzea eta jokuetan aritzea izan ziren lehentasun handieneko ekintzak. Adinaren arabera ez zegoen desberdintasunik apenas, beraz sexuaren arabera desberdintasunik bazegoen aztertuta nesketan lagunekin hitz egitea gehiago nabarmentzen zen eta mutilen kasuan futbolak agerpen handiagoa zuen. Gainontzeko ekintzei dagokienez ez zegoen desberdintasun nabarmenik.

Behin lehentasunak aztertuta, ekintza konkretu hoietan zehaztapenak bilatze aldera, zer bideo mota ikusten zituzten adierazi zitzairen. Internet bidez bideoak ikusten dituztenean, nesken kasuan mutilen kasuan baino askoz gehiago ikusten dituzte bideoklipak zein musika bideoak, mutilen artean, ordea, banatuago daude gustuak. Bi sexuek amankomunean duten bideo mota txantxak edo bideo barregarriak dira.

Joku motei dagokionez, neskek eta mutilek plataforma jokoak gustoko dituzte. Behin horietatik kanpo mutilek gustokoen dituztenak borroka eta kirola gaia duten jokoak dira, eta nesken artean aldiz zainketakoak, moda eta txapelketak.

Internetek zituen alderdi positibo eta negatiboei buruz galdetzerakoan, positiboan artean gehien azaldu zirenak informazioa bilatu ahal zutela (14 erantzun), lagunekin hitzegiteko aukera (12 erantzun), dudak bilatu ahal zituztela (8 erantzun) eta jokuak (6 erantzun) izan ziren. Alderdi negatiboan artean aldiz, birusak (13 erantzun), arriskuak (8 erantzun) eta bijilantzia (3 erantzun) izan ziren errepikatuenak.

Sare sozialei dagokionez, ikasleen gehiengoak bazuen sare soziala edo gainontzekoekin komunikatzeko programarik. Hauen artean erabiliena Tuenti izan zen dudarik gabe, eta gurasoek bazekitela adierazi zuten denek.

Orokorrean, gehien errepikatzen ziren alderdi positiboak lagunekin hitzegitea (26), jokuetan ibiltzea eta argazkiak ikusi, igo zein komentatzea izan ziren. Alderdi negatiboetarako dagokionez, aldiz, gehien errepikatzen direnak jende txarra ezagutzea (5), denuntziatzearen aukera (4) eta pasahitza ahaztea izan ziren.

Ikus dezakegunez, bai besteekin interakzionateko bai jolasteko dituzte oso gustoko eta ikasleen gehiengoa kontziente da sare sozialek arriskuak izan ditzaketela.

Bukatzeko, esan dezakegu, nahiz eta 5. mailan 6. mailan baino kontrol gehiago baduten, oraindik ez dago guraso eta seme- alaben arteko komunikazio handirik Internet gaiari dagokionez. Honetaz gain, nahiz eta ikasleen gehiengoak Sarean zenbait arrisku daudela badakien (ez denek), hauei gurasoekin hitzegiteko konfidantza eta tarte emateaz gain, arrisku horiei aurre egiteko tresna eta baliabideak ematea ere beharrezkoa da.

5. ESKOLARAKO ERAGIN SOZIAL, PEDAGOGIKO ETA PSIKOLOGIKOAK.

Dagoeneko gaiaren inguruko oinarri teorikoak aztertuta, autore ezberdinek ematen dioten ikuspuntua ikusita zein inkestaren bidez ateratako datuak kontutan izanda, haur eta gaztetxoek Internetekin duten erlazioa gaiaren inguruan hausnartu izanak ekar ditzazkeen eragin sozial, pedagogiko zein psikologikoak zein diren adieraziko dira.

5.2 Eragin soziala

Internetek guztiongan, eta bereziki teknologia berri hauekin jaio diren haurren inguruan izan duen eragina ezin da ukatu, eta pentsaezina da elkarreraginean dauden etxeko sozializazioa eta eskola sozializazio kontakturik gabe eramatea.

Sozialki duen inplikazioari dagokionez, kontuan harturiko hiru agente sozializatzaileei zein modutan eragingo dien aztertuko dugu.

Eskolari dagokionez, edo zehatzago esanda irakasleari dagokionez, gai honen inguruan informatu eta ikertzeak, ekarpen garrantzitsuak dakartzkie sozialki. Lehenik, gizartea Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

hobeto ezagutzen du, hau da, bere ikasleen eskolaz kanpoko testuingurua hobeto ezagutzen du. Bigarrenik, haren ikasleetan eragiten duen agente sozializatzaile baten erabilera ezagutzera darama, bai eta honek dituen edo izan ditzakeen eraginetaz jabetzera. Guzti honek, hiru aspektutan izango du eragina.

Lehena irakaslearengan, gizartea hobeto ezagutzeak ikasleen sozializazio hobeko bat egitera bultzatuko duelako, gizartearen aldaketetara egokitu eta malgutasunez jokatu. Honek, ikasleak hobeto ulertu eta ezagutzea ahalbidetuko du, haien sozializazio prozesuan ikasleei tresna eta baliabideak emanik, izan ditzakeen aukeretara bidea ireki eta arriskuen/arazoen aurrean bitartekoak jarritz.

Bigarrena haurrengan, irakasleak zein gurasoek gehiago jakinik haien sozializazio egokiagoa izaten lagunduko duelako, gizartean jarduteko beharrezko tresna eta bitartekoak emanik, hauek gizarteko partaide aktibo izateko prestatuz.

Hirugarrenik familian, haien seme- alaben sozializazio modua eta bitartekoak gehiago ezagutzuz, haien heziketan modu egokiago batean eragiteko tresnak izango dituztelako, honek haiek sozializatzerakoan ere lagunduz.

Honekin bat eskolak eta irakasleak duten erantzunkizun edo betebeharrak sozial hori betetzera eramaten ditu, hau da, haurren hezkuntza integrala bultzatzera, hauen gizarteratze egokia eman dadin beharrezko bitartekoak ezartzera.

Sozialki, haurrengan familiak eta eskolak duten garrantzia kontuan harturik, ezinbestekoa da ikasle hauek gizarteak aurkezten dien aukeren eta arriskuen aurrean ahalik eta modu onenean erantzuteko prestatzea. Guraso edo irakasle bezala begiak itxi edota teknologia berrien erabilera totala debekatzeak gaztetxoak baliabiderik gabe uztea litzatekeelako, aurrean duten gizarterako prestakuntzan atzerapausoak emanik.

5. 2 Eragin pedagogikoa

Aspektu pedagogikoei dagokionez, bi atal bereiz daitezke:

Batetik, irakasleak egin duen gerturatze prozesua aprobetxatuz, bide horren berri eman eta haien seme- alaben eta inguruaren ezagutzan aberastea. Pedagogikoa da guraso- irakasle erlazio hori eramanez haien artean ikasi dezaketeena, bai pertsonalki, bai haien haur eta gaztetxoei buruz. Honetaz gain, haien haurrak gehiago ezaguturik

eta irakaslearekin harremanetan arazo edo kezken aurrean nola jokatu jakiteko baliabide gehiago dituzte.

Honetaz gain, irakasleak duen informazioaz baliatuz, zenbait gurasoentzako pedagogikoa izango da bi aspektutatik begiraturaz:

1. Haien seme- alaben hezkuntza eta heziketan laguntzeko tresnak edo baliabideak eskuratzen dituzten aldetik.
2. Haien seme- alabei laguntzeko bidean haiek ere konpetentzia edo gaitasun teknologikoa eskuratzen duten aldetik, bai eta haiekin komunikatzeko eta gauza gehiago elkarbanatzeko aukera izango duten aldetik.

Ikasleen aldetik ere badu alderdi pedagogikoa:

1. Haien gurasoekin batera, Interneten erabilera egokiago bat egiten ikasiko dute, baita aurkitzen dituzten arazo edo arriskuen aurrean nola erantzun ikasten joango dira.

5.2.1 Proposamen pedagogikoak

Pedagogikoki duen eragina kontuan izanik, zenbait jarduera eraman daitezke aurrera tutoretza ekintzaren bitartez. Bai guraso bai tutoreek haien haurrak Sarean hezitzerako orduan hobeto prestatuak egon daitezkeen, zenbait ekintza eraman daitezke aurrera:

- Irakasleentzako gaiari buruzko formakuntza saioak ziklo mailan.

Behin irakasleak formakuntza bat dutelarik eta informazioa jakinda:

- Gurasoekin formakuntza- bilerak proposatu daitezke.

Bilera hauetan, tutoreak gurasoei gaiari buruzko beharrezko informazioa eskeintzeaz gain, Sarean aurkitu ditzazketen baliabideak eskeiniko zaizkie, jarraian interesgarriak izan daitezkeen batzuk aipatu eta azalduko dira.

Izan ditzaketzen arazoak eta hauei nola aurre egin:

- Arazoa: Sarean eduki desegokiak aurkitu dira (haurren pornografía, arrazakeria, anorexia zein bulimiari apología...).

Nola erantzun: www.protegeles.com weborrian aurki dezaketzen denuntzia atalean.



3. Irudia. Protegeles web orria (salaketa gunea borobildurik)

- Araza: Ez dakit gaiari buruzko informazioa non jaso.

Nola erantzun:

- Informazio orokorra nahi bada. www.protegeles.com web orrialdean bi hilabetero argitaratzen duten *Nativos digitales* aldizkaria. Online irakurri zein pdf formatuan deskargatu daiteke.
- Adikzio gaiekiko informazioa eta prebentzio aholkuak www.tecnoadicciones.com
- Gurasoek bideojokoak nola aukeratu jakin dezaten weborria <http://www.guiavideojuegos.es/>
- Gai konkrituagoi buruzko lerroak ere badira www.protegeles.com web orrialdean, hala nola, anorexia eta bulimia Interneten, cyberbullying, bideojokoak, grooming (sexu jazarpena Internet bidez)...

Gai konkritu bati buruzko interes orokorra dagoela ikusi ezker, taldekako tutoretzak proposatu daitezke.

- Araza: hurrek zein gurasoek ez dakite non aurkitu baliabide egokiak edo aholkuak.

Hirutako bilerak proposatu daitezke, hau da, gurasoak, ikasleak eta irakaslea egon daitezkeen bilerak. Huetan baliabide interesgarriak proposatu daitezke, hurrek haietzako egokiak diren baliabideak erabil ditzaten.

- Bilatzaile seguruagoa: <http://www.buscadorinfantil.com/> honetan beharrezko informazioa bilatuko dute, haien adinerako egokiak ez diren edukiak sahiestuz.
 - Adinerako egokia den sare soziala: www.micueva.com . Oso proposamen interesgarria, haiek gustoko duten komunikazio funtzioa beteko baitute, baina segurtasun gehiagorekin.
- Arazoa: Ikasleek Sarean ibiltzeko tresnak eta arriskuak sahiesteko gaitasuna ez izatea.
 - Kasu honetan, plangintza sakonago bat izango luketen talde-tutoretzak edo gelako asanbladak egin beharko lirateke ikasleekin. Hauetan bai haien intimitateak duen garrantzia, besteekiko errespetua, arriskuen aurrean nola erantzun... bezalako gaiak landuko lirateke.
 - Arazoa: Internet etxerako lanetarako erabilgarria ez ikustea edo alderdi akademikoekin izan dezakeen erlazioa ez ikustea.
 - Gelako foro bat irekitzea edozein duda, galdera, edo gai akademikoekin loturiko iruzkinak egiteko.

5.3 Eragin psikologikoa

Psikologikoki izan dezakeen eragina ere esanguratsua da.

Batetik, eragina zuzena du ikasleengan, hauek hobeto ezagutuz eta haien Internet erabilera bideratuz, eragin positibo hauek izango ditu:

Haiekin izango dugun komunikazioa hobetuz eta erabiltzen dituzten baliabideak ezagutuz, ez dira bakarrik sentituko edozein arazoren aurrean eta beldurra edo ezjakintasuna bezalako sentazioak desagertuko dira helduekin hitzegiteko aukera izanik.

Ez dituzte ikusiko (edo gutxienez asko murriztuko dira) haien adinerako desegokiak diren edukiak, eta honekin batera haien garapenean arazorik egotea sahiestuko da.

Teknologia berriek sortzen dituzten adikzioa bezalako gaixotasunak prebenitzeko aukerak handituko dira, erabilera egokiago bat sustatuz.

Bestetik, gurasoek ezagutza gehiago izango duten aldetik, Interneten irudia erlatibizatzeke aukera izango dute, honek larritasun edo ezjakintasun sentrazioa desagertarazi eta Interneten erabilera era erradikal batez ez ikusteko aukera emango die, onurak eta kalteak baloratuz.

Honetaz gain, bai irakasle bai gurasoen aldetik haien seme- alaben heziketa eta hezkuntzan duten parte- hartzea hobetu denaren sentrazioa izango dute.

CONCLUSIONES Y CUESTIONES ABIERTAS

Este trabajo ha ayudado a conocer más acerca del tema de la relación entre Internet y el alumnado de tercer ciclo de Educación Primaria. Conociendo el marco teórico y el desarrollo histórico que han tenido las ideas acerca de la relación con los medios de comunicación, hemos llegado a la conclusión de que la recepción de la información solo es una parte del proceso. Es una parte del proceso, y debemos tener en cuenta que como profesor nuestra labor es educar al alumnado a la hora de ser críticos con aquella información que reciban de los medios de comunicación.

En cuanto a las opiniones que tienen diferentes autores acerca del tema, podemos concluir que con una orientación adecuada de familia y tutoría, y siempre evitando los excesos, Internet puede ser beneficioso para el alumnado de esta edad. Lo importante es dotarlos de las herramientas necesarias para hacer un buen uso de Internet y ser capaz de reaccionar adecuadamente ante los riesgos.

Por otra parte, en cuanto a la parte práctica y las hipótesis planteadas al principio, podemos decir que el uso de Internet está generalizado entre el público de entre 10 y 13 años de pueblos pequeños como los de Lekunberri- Larraun.

La mayoría de los alumnos tiene acceso a Internet sin necesidad de ir a ningún otro establecimiento o biblioteca, ya que la mayoría del alumnado de tercer ciclo de Primaria que tiene ordenador en casa tiene acceso a Internet (%97).

Otro de los datos que hemos podido confirmar es la importancia que tiene la relación entre iguales y su reflejo en el uso de Internet, dado que la prioridad más destacada entre las sugeridas ha sido hablar con los amigos. También se puede concluir que el uso de Internet para hablar con los iguales es algo superior entre las chicas que entre los chicos.

A la hora de ver videos en Internet, hemos podido observar que hay diferencias entre los sexos como planteamos en las hipótesis, ya que el sexo femenino prefiere los videoclips o videos musicales y el sexo masculino prefiere los deportes o los videos de risa. Aunque este último tipo de video también tiene público femenino.

En cuanto al tipo de juegos, tanto a las chicas como a los chicos les gustan los juegos de plataformas. En lo que se refiere a otro tipo de juegos, los chicos elijen los de lucha o deportes, mientras las chicas prefieren los juegos de cuidados, moda o concursos.

Las redes sociales también tienen difusión entre los jóvenes, ya que son pocos los que no utilizan una red social (14%), y en la mayoría de los casos estos tienen algún medio de comunicación en la red (correo electrónico, chat...).

Los riesgos o aspectos negativos que más preocupan de Internet al alumnado son los virus, los peligros y la vigilancia. En cuanto a los aspectos positivos los que más se repiten son buscar información, hablar con los amigos, resolver dudas y jugar.

Por lo que respecta a la intervención que hace la familia en el uso de Internet del alumnado, la mediación y comunicación familiar respecto a este tema es muy bajo. La mayoría del alumnado (69%) afirma que nunca o casi nunca navegan por Internet con ayuda de su padre o madre. Y en cuanto a la comunicación que mantienen con estos la mitad de ellos indica que nunca o casi nunca habla sobre lo que visita en Internet con sus padres.

El ejemplo que dan las familias, por otro lado, según el alumnado es de un uso habitual de Internet en la mayoría de los casos (76%) y son pocos los que indican que el uso es bajo o nulo.

En cuanto al control de tiempo y contenidos, aunque casi todo el alumnado afirma que sus padres a veces controlan su tiempo, el porcentaje es menor en el caso del control del contenido.

Analizados los datos, podemos concluir que el uso de Internet está generalizado y pero hay poco o ningún control en cuanto a contenidos. Teniendo esto en cuenta las implicaciones pedagógicas, psicológicas y sociales que puede tener este estudio son importantes.

Socialmente implica un impulso hacia una mejor socialización del alumnado por parte tanto de los profesores como de las familias, dotando así al alumnado de herramientas

necesarias para participar de forma activa en la sociedad. También supone una mejor adaptación de los agentes socializadores a la sociedad actual.

Pedagógicamente supone un cambio en la función pedagógica que tiene el tutor en cuanto al alumnado y a las familias, mediante ciertas dinámicas que se pueden llevar a cabo partiendo de los datos y orientándolo a un mejor uso de Internet de la comunidad educativa.

Psicológicamente también tiene cierta influencia, ya que por una parte tanto los padres como los tutores obtienen mayor conocimiento afectando así en su bienestar y relación con los menores. Por otra parte afecta directamente en los menores, ya que obtendrán más herramientas para navegar por la Red de manera segura y enriquecedora, evitando contenidos inadecuados para su edad que pudieran afectar en su desarrollo.

Las diferentes dinámicas que se pueden llevar a cabo mediante la acción tutorial con el objeto de mejorar tanto el conocimiento como el uso de Internet son las tutorías de grupo con planificación previa, intercambio de experiencias e información entre tutores, tutorías con grupos interactivos, tutorías individuales (en casos más concretos), utilizar las TICs en el aula, reuniones de a tres (alumnado, profesorado, familias)...

Partiendo de la información obtenida mediante este estudio, y aprovechando las cuestiones planteadas al inicio, la investigación puede ser orientada en diferentes direcciones. Se pueden estudiar planteamientos más concretos en áreas específicas de Internet, como por ejemplo el uso concreto de las redes y como educarlos para su uso, el tipo de videojuegos que son adecuados o como aplicarlos en clase, como utilizar las TICs para enriquecer la docencia, incluso medidas que se toman o que pueden tomarse a nivel de escuela.

REFERENCIAS

A. Tsitsika & E. Tzavela & F. Mavromati & the EU NET ABD Consortium. (2012). Investigación sobre conductas adictivas a Internet entre los adolescentes Europeos. [Disponible en (15/05/2013): http://www.protegeles.com/docs/estudio_conductas_internet.pdf]

Alemán, C & Rondón, L.M & Munuera, P. (2007). Nuevos valores como escenario de la pluriformidad familiar del siglo XXI. [Disponible en (15/05/2013): http://www.fad.es/sala_lectura/C2007_comn_1.pdf]

American Academy of Pediatrics. (2011). The impact of Social Media on Children, Adolescents, and Families. [Disponible en (15/05/2013): <http://pediatrics.aappublications.org/content/127/4/800.full>]

Cánovas, G & González, D. (2013). Dime a quién agregas y te diré quién eres. Revista Nativos digitales, 6-16. [Disponible en (15/05/2013): <http://protegeles.com/nativosdigitales/index.html>]

Cervera, J. (2005). La culpa es de los padres. [Disponible en (15/05/2013): <http://navegante2.elmundo.es/navegante/2005/03/10/weblog/1110416721.html>]

CIS (Centro de Investigaciones Sociológicas). (2000). La televisión y los niños: hábitos y comportamientos. [Disponible en (15/05/2013): http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2380_2399/2391/Es2391.pdf]

Flores, J. (2010). Jóvenes y redes sociales: Descubre sus consecuencias. [Disponible en (15/05/2013): <http://www.mujerhoy.com/ser-madre/problemas-resueltos/jovenes,redes,sociales,descubre,113072,04,2010.html>]

Frantziako zientzietako akademia. (2013). L'enfant et les écrans. Editions Le Pommier.

Gyddens, A. (1991 1.edizioa 2006 azkena). Sociologia. "Komunikazioak eta masa-komunikabideak. Madrid: Alianza Editorial.

Un nuevo agente socializador entre el alumnado de tercer ciclo de Primaria: Internet/ Sozializazio agente berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleengan: Internet

Imaz, J.I. (2011). Pantallas y educación: adolescentes y videojuegos en el País Vasco. [Disponible en (15/05/2013): http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/1130-3743/article/viewFile/8583/8815]

Lavilla, Fco J. (2012). Los videojuegos y los niños. [Disponible en (15/05/2013): <http://www.cun.es/area-salud/salud/cuidados-casa/videojuegos-ninos>]

Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. BOE núm 106. Jueves 4 de mayo 2006.

Llopis, R. (2004). La mediación familiar del consumo infantil de televisión. Un análisis referido a la sociedad española. Comunicación y sociedad, volumen 17, número 2.

Perez, C. (2008). [Disponible en (15/05/2013):<http://www.upcomillas.es/redif/revista/Barcelona.pdf>]

Pulido, M. (2010). La socialización en la escuela. [Disponible en (15/05/2013): http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_33/MARIA_DEL_MAR_CANETE_PULIDO_01.pdf]

Ruiz, J.A. (2008). Niños y pantallas. Oportunidades y retos de una relación en transformación. [Disponible en (15/05/2013): <http://www.publicacionescajamar.es/pdf/publicaciones-periodicas/mediterraneo-economico/14/14-247.pdf>]

Taberner, J. (2009). Soziologia eta hezkuntza. Hezkuntza- sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak. Universidad del País Vasco.

Trinidad, A & Gómez, J. (2012). Sociedad, familia, educación. Una introducción a la sociología de la educación. Editorial Tecnos.

Trujillo, F. Educar es socializar (II): por una socialización rica y crítica. [Disponible en (15/05/2013): <http://www.educacontic.es/blog/educar-es-socializar-ii-por-una-socializacion-rica-y-critica>]

ANEXOS

Anexo 1.

GALDETEGIA

Interneti buruzko galdetegia

Neska Mutila

Kurtsoa: _____

0. Zein bizi zarete etxean?

1. Zenbat ordenagailu dituzu etxean?
2. Portatilak ala finkoak dira? Portatilak Finkoak
3. Gelan ba al duzu ordenagailurik? BAI / EZ
4. Baduzu Internet konexioa etxean? BAI / EZ
5. Aurrekoan ezetz erantzun baduzu...**Erabiltzen duzu Internet beste nonbait?** BAI / EZ

NON?

6. Programa hauetatik zein ezagutzen dituzu? Borobildu

Google Twitter Youtube Facebook Minijuegos Spotify

Minijuegos Tuenti Juegosjuegos

Ezagutzen dituzun beste batzuk:

7. Zertarako erabiltzen duzu Internet gehien? Ordenatu zenbakiekin (1 gehien erabiltzen duzuna eta 7 gutxien)

- Informazioa bilatzeko Lagunekin hitzegiteko Bideoak ikusteko
- Musika/pelikulak jeisteko Jokuetan ibiltzeko Futbol txapelketak ikusteko
- Beste bat _____

8. Zenbatero erabiltzen duzu Internet? Markatu X batez

la inoiz Hilabetean behin Astean behin
Astean 2-3tan Egunero (ordu bat gehienez) Egunero (ordu bat baino +)

9. Normalean, norbaitekin egoten zara ordenagailuan? BAI / EZ

Norekin? _____

10. Zure gurasoak zurekin daude Internet erabiltzen duzunean?

Beti la beti Batzutan la inoiz Inoiz ez

11. Badu babesik zure ordenagailuak? (Zenbait programatara Interneten ezin zarela sartu)

Bai Ez Ez dakit

12. Zure gurasoek erabiltzen dute Internet?

Asko Batzuetan la inoiz Inoiz ez

13. Zure gurasoek esaten dizute zer programatan ibili?

Bai Batzuetan la inoiz Inoiz ez

14. Interneten ibiltzeko denbora mugatzen al dizute?

Bai Ez Batzuetan

15. Zer joku mota erabiltzen dituzu gehiago? borroak, plataformak, zainketakoak...

16. Bideoak ikusten dituzunean zeri buruzkoak dira gehienbat ? Txantxak, borroka, trebetasunak, bideoklipak, marrazki bizidunak...

17. Gurasoekin hitzegiten al duzu Interneten ibiltzen zarenaren inguruan?

Beti la beti Batzuetan la inoiz Inoiz ez

18. Ikusten dituzun bideoak zure gurasoei gustatuko litzaizkiekela uste duzu?

Denak Gehienak bai Gehienak ez Ez

19. Etxekolanetarako erabilgarri iruditzen zaizu Internet?

Asko Dexente Gutxi Ezer

20. Zer gauza positibo (onak) eta zer gauza negatiboak (txarrak) ikusten dizkiozu Interneti?

Alde onak:

Alde txarrak:

21. Erabiltzen duzu sare sozialik? (Tuenti, twitter, Facebook...) BAI / EZ

22. Zein sare sozialetan duzu kontua? _____

23. Zure gurasoek badakite sare sozialetan zabiltzala? BAI / EZ

24. Zertarako erabiltzen duzu gehien?

Lagunekin hitzegiteko Jokoetan jolasteko Musika entzuteko

Besteen argazkiak ikusi eta komentatzeko Argazkiak igotzeko

25. Hitzegiten al duzu sare sozialen bidez normalean aurrez aurre hitzegiten ez duzun jendearekin?

Bai Batzuetan Ez

26. Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zergatik?

27. Sare sozialen alde positibo (onak) eta negatibo (txarrak) aipatu.

Alde onak:

Alde txarrak:

